

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREN GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA EGITEKO GIDA



EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GIDA



**HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN
OROKORREN GENEROAREN
ARABERAKO ERAGINAREN
EBALUAZIOA EGITEKO GIDA**

Izenburua: Hiri Antolamenduko Plan Orokorren generoaren araberako eraginaren ebaluazioa egiteko gida.

Argitaratzailea: Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea.
Manuel Iradier, 36, 01005 Vitoria-Gasteiz.

Diseinua eta maketazioa: EPS - Eusko Printing Service

Data: 2024 azaroa

Ale kopurua: 1.000 ale.

Deskribatzaileak: Berdintasuna, Hirigintza, Genero inaktuaren ebaluaketa, Gida.

Inprimaketa: EPS - Eusko Printing Service

ISBN: 978-84-89630-61-1

Lege gordailua: G 719-2024

AURKIBIDEA

SIGLAK	5
SARRERA	8
1. NAHITAEZ EGIN BEHAR DA HAPO-AREN GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA?	11
1.1. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, euskadiko toki erakundeei buruzkoa	12
1.2. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina.	13
1.3. 3/2007 Lege organsikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoa	17
1.4. 7/2015 Legegintzako errege dekretua, urriaren 30ekoa, lurzorua eta hiri-birgaitzearen legearen testu bategina onartzen duena	19
2. NORK EGITEN DU GEE-A?	20
3. NOLA EGITEN DA HAPO BATEN GEE-A?	23
3.1. Kontuan hartu beharreko elementuak	24
3.2. Hapo-ak arautzen duen esparruaren analisi-dimentsioak	28
3.2.1. Orokorrak	29
3.2.2. Beste batzuk	32
4. ZEIN PROZESURI JARRAITU BEHAR ZAIO? GEE-A HAPO BAT EGITEKO IBILBIDEAN	37
4.1. Hiri antolamenduko plan orokor bat egiteko prozesua	38
4.2. 1. FASEA: Prestatze-jarduketak	38
4.3. 2. FASEA: Aurrerapena	41
4.4. 3. FASEA: Hasierako onespena	42

4.5. 4. FASEA Behin-behineko onespina	43
4.6. 5. FASEA Behin-behineko onespina	44
4. 7. Jarraipena	44
4. 8. Hapo-aren proiektuaren esparruan gee-a egiteko prozesuari dagokion eskema	45
ERANSKINAK	47
I. ERANSKINA: Hapo-aren generoaren araberako eraginaren balioztapenerako kontuan hartu beharreko gaiak eta adierazleak	48
II. ERANSKINA: Generoaren araberako eraginaren ebaluazio-txostenaren eredia	61
III. ERANSKINA: GEE-A Hirigintza-Plangintzaren prozeduran	68
IV. ERANSKINA: Genero-ikuspegia lurralde antolamenduaren gidallerroetan	71
V. ERANSKINA: Terminoen glosarioa	81
VI. ERANSKINA: Erreferentzia interesgarriak	86

SIGLAK

Hauek dira dokumentuan erabiltzen diren sigla nagusiak:

Ud.	Udala
LHAO	Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala
GEE	Generoaren araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa
IT	HAPOaren Idazketa Taldea
HPHP	Herritarrek Parte Hartzeko Programa
HAPO	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra



Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren **20.7 artikulua honako hau ezartzen du:**

“Xedapen orokorren izaera juridikoa duten planei, batik bat lurralde- eta hirigintza-planei, genero-inpaktuaren alde aurreko ebaluazioa egin behar zaie, eta berdintasuna sustatzeko neurriak sartu behar dira. Nolanahi ere, duen espezifikotasuna dela-eta, erregelamendu bidez zehaztuko da izapide hori nola gauzatu behar den.”

Bestalde, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030erako Estrategiak, Eusko Jaurlaritzak 2024ko otsailaren 13an onartutakoak, bere helburuen artean ezartzen du genero-desberdintasunak murrizteko edo ezabatzeke eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak jasotzen dituzten arauen kopurua handitzea, eta genero-ikuspegia txertatzea (GO2.3 eta GO2.7).

Gida honen xedea da tresna erabilgarria izatea Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko agindu hori betetzeaz arduratzeko diren profesionalentzat. Gure inguruko tokiko errealitatea kontuan hartuta diseinatu da, hura aplikatzeak tokiko berdintasun-politiken garapenean aurrera egiten lagunduko digulakoan.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egin du dokumentua, Red kuorumei emandako hasierako laguntza teknikoarekin, eta gaian inplikaturik dauden euskal erakunde publiko nagusiekin lankidetzan: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak; eta toki-erakundeak, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen bitartez.

Eskerrak eman nahi dizkiet gida hau egiteko prozesuan parte hartu duten pertsona eta erakunde guztiei, izan duten inplikazioagatik eta egin duten lan onagatik; izan ere, ezinbestekoa izan da dokumentu hau lortzeko. Eta ziur gaude horrek asko lagunduko duela genero-ikuspegidun hiri-plangintzan.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza

SARRERA



Azken urteotan, EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkarte) eta Berdinsarearekin (Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sarea) lankidetzan, tokian tokiko generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioak (aurrerantzean, GEE) egitea errazteko lanean aritu da Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea. Gaur egun, betebeharrak Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarako gabe bizitzeko Legearen testu bateginarren 20. artikuluan jasota dago.

Bada, 2018. urtean Emakundek eta EUDELek elkarrekin argitaratu zuten *Generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa. Toki-erakundeetan ezartzeko prozesuaren eta ezarpenerako tresnen azalpen-gida dokumentua*.

Ilido berean, dokumentu horren helburua da hiri-antolamenduko plan orokorretan (HAPO) GEEa gauzatzeko bidea sinplifikatzea. Dena den, analogiarik badago, beste lurralde- eta hirigintza-plan batzuei aplikatu dakieke (araudiari jarraikiz, GEEaren xede izan behar dute), horrek guztiak etorkizunean izapide hori egiteko modua erregelamendu batean zehaztea galarazi gabe.

Modu ulerterrazean jorratzen ditu gai hauek:

- ~ Zein da GEEa gauzatzeko esparru juridikoa?
- ~ Nork dauka hura gauzatzeko betebeharra?
- ~ Zergatik berrikusi behar dira genero-ikuspegitik arauak edo administrazio-egintzak?
- ~ Zertan datza ebaluazioa?
- ~ Zein kasutan egin behar da?
- ~ Nork egiten du?
- ~ Aurretiazko zein baldintza bete behar dira GEEa behar bezala gauzatzeko?
- ~ Nola egiten da GEE bat?

Orobat, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea (2/2006, ekainaren 30ekoa) ezarritakoa betetzeko premiari (lege horren arabera, udal guztiek bertako hiri-antolamendura egokitutako Hiri Antolamenduko Plan Orokor bat edukitzeko betebeharrak formala dute) eta udalek berek zentzu horretan proposatutako eskaerei erantzuten die dokumentu honek.

Eskaera horri gehitzen zaizkio, aurrekari eta indargarri positiboko elementu gisa, alde batetik, genero-ikuspegia sartzea uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez behin betiko onartutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako zeharkako gai gisa, eta, bestetik, Emakundek eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako bultzada, genero-ikuspegia udal-planteamenduan eta hirigintzan sartzeko ekintzak finantzatzuz, baita foru- eta toki-administrazioek gauzatutako beste ekimen batzuk ere, eta sektoreko profesionalek eta feminismoak (gero eta aktiboago eta hirigintzak eguneroko bizitzan dituen ondorio espezifikoengatik arduratuago dagoena) interes handiagoa dutela eta lan gehiago egin dutela arlo horretan.

Emakundek koordinatutako parte hartzeko prozesu baten emaitza da gida hau. Bertan, hirigintzako, ingurumeneko eta berdintasuneko alorretako pertsonak parte hartu dute, eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, hiru foru-aldundiek eta udalek (EUDELen bidez) ekarpenak egin dituzte.

Espero dugu gida honek sortzetiko helburua betetzea; alegia, hiri-antolamenduko plan orokorren generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak egiteko tresna lagungarria izatea, toki-erakundeek hiri-egoeraren genero-analisiak erraz egin, eta tokian tokiko hobekuntzak proposatu eta ezarri ditzat en berdintasun-arloan.

1. NAHITAEZ EGIN BEHAR DA HAP- AREN GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA?



Bai. Hiri-antolamenduko plan orokorrak (aurrerantzean, HAPO) eta beren aldaketak xedapen orokorrak dira, eta, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluari jarraikiz, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin behar zaie eta desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak barne hartu behar dituzte.

Hauek dira arlo horrekin lotutako xedapenak dauzkaten legeak:

1.1. 2/2016 LEGEA, APIRILAREN 7KOA, EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKOA

2/2016 Legearen arabera, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioak printzipio zuzentzaile izan behar du toki-erakundeen zuzendaritza politikoa eta gobernu-ekintza (4. 2.i. artikulua), eta udalerriek «genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea» esparru materialean eskumen propioak erabil ditzakete, lege horretan eta aplikagarria den legerian ezarritakoaren esparruan (17.1.27 artikulua).

4. artikulua. Toki-araubideari buruzko eta udalen eta gainerako toki-erakundeen zuzendaritza politikoari eta gobernu-ekintzari buruzko printzipio zuzentzaileak.

- ~ 2. Udalen eta gainerako toki-erakundeen zuzendaritza politikoa eta gobernu-ekintza lege honetan ezarritakoaren eta honako printzipio hauen arabera garatuko da:
- ~ (...)
- ~ i) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa.

17. artikulua. Udalerrien eskumen propioak.

- ~ 1. Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:
- ~ (...)
- ~ 27) Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.

1.2. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina.

Honako hau aipatzen du Berdintasunerako Legearen 3. artikulua: «Hauek dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAEko botere publikoen jardura gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak: tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta desberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegia txertatzea; ekintza positiboa; generoaren arabera rola eta estereotipoak desagerraraztea; ikuspegi intersektionala txertatzea; sexu- edo genero-identitatearen garapen askea, sexu-orientazioa, gorputz-autonomia eta autodeterminazioa; ordezkartza orekatua; lankidetzatza eta koordinazioa eta nazioartekotzea; emakumeen ahalgintza; gizonen inplikazioa; parte-hartzea; berrikuntza, gardentasuna eta kontu-ematea; hizkuntza-eskubideen babesa eta euskareneren erabileraren sustapena».

Artikulu horretan, printzipio bakoitzetik eratorritako aginduak biltzen dira. Horietatik, genero-ikuspegiaren integrazioari dagokiona nabarmendu behar da. Horren arabera:

«EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatze eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Lege honen ondoretarako, genero-ikuspegia txertatzea da emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrianak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko helburu

eta jarduketa zehatzak txertatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan».

Berdintasunerako Legearen 4.3 artikulua lurreko historikoetako foru-organoei eta tokiko administrazioari emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak egikaritzeko eskumena esleitzen die, eta 7. artikulua tokiko administrazioari arlo horretan dagozkion funtzioak ezartzen ditu.

Zehazki, GEEei, eta hirigintza- eta lurreko antolamenduarekin lotutako politikei eta programei dagokienez, 19., 20. eta 50. artikulua nabarmendu behar dira:

19. artikulua. Administrazioaren araudia eta jardura.

- ~ 1. – EAEko botere publikoek aktiboki izan behar dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua arauak garatu eta aplikatzerakoan, eta planak, programak eta politika publikoak formulatzeko beste tresna batzuk, eta kontratuak, dirulaguntza-programak eta administrazio-egintzak garatu eta aplikatzerakoan.
- ~ 2. (...)
- ~ 3. Generoaren arabera inaktua aurretiaz ebaluatzerakoan, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzerakoan eta kapitulu honetan aurreikusitako bestelako jarduerak egiterakoan, kontuan hartu behar da emakumeen eta gizonen arteko diferentzietan zer-nolako eragina daukaten diskriminazio anizkoitza eragiten duten faktoreek, zeinak 3.1 artikulua azken atalean aipatzen baitira.
- ~ 4. (...)

20. artikulua. Generoaren arabera inpaktua aurretiaz ebaluatzea, desberdinkeriak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko.

- ~ 1.– Arau bat egiteko unean, EAEko administrazio publikoek, hori sustatzen duen administrazio-organoaren bitartez, ebaluatu egin behar dute proposamen horrek nolako inpaktua izan dezakeen emakumeen eta gizonen egoeran. Horretarako, aztertu behar du ea arauan proiektatu den jarduerak ondorio positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak desagerrarazteko eta haien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.
- ~ 2.– Egindako genero-inpaktuaren ebaluazioaren arabera, administrazio-arauaren proiektuan honelako neurriak sartu behar dira: batetik, arau edo proiektu horiek emakumeen eta gizonen egoeran sor dezaketen eragin negatiboa indargabetzeko neurriak, eta, bestetik, hautemandako desberdinkeriak desagerrarazteko edo gutxitzeko eta sexuen berdintasuna sustatzeko neurriak.
- ~ 3.– EAEko administrazio publikoek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskuduna den organo edo erakundeak proposatuta, arauak edo gidalerroak onartu behar dituzte, adierazteko, batetik, zer urrats egin behar diren generoaren arabera inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta berdintasuna bultzatzeko neurriak ezartzeko, eta, bestetik, zer administrazio-arau dauden salbuetsita aurretiazko ebaluazio hori eta artikulua honetan jasotzen diren gainerako tramiteak egin behar izatetik.
- ~ 4.– Arau-proiektuari buruzko memorian xehetasunez azaldu behar da zer tramite egin diren artikulua honi dagokionez, eta hark zer emaitza izan dituen.
- ~ 5.– Araua sustatzen duen administrazio-organoak aztertu egin behar du ea arauan jasotako neurriak, aurreko paragrafoetan aipatutakoak, eraginkorrak diren emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzearen eta desberdinkeriak ezabatzearen helburua lortzeko; gero, horren berri emango dio dagokion administrazioan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskuduna den organo edo erakundeari.
- ~ 6.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan prestatzen diren arau-proiektuei buruzko txostena eman behar du, artikulua honetan xedatzen dena egoki aplikatzen dela egiaztatzeko eta, hala badagokio, horren inguruko hobekuntzak proposatzeko. Beste administrazio publiko batzuen arauen kasuan, organo eskudunek ezarri behar dute nola bermatu artikulua honetan finkatutakoa behar bezala aplikatzen dela.
- ~ 7.– Xedapen orokorren izaera juridikoa duten planei, batik bat lurralde- eta hirigintza-planei, genero-inpaktuaren aldez aurreko ebaluazioa egin behar zaie, eta berdintasuna sustatzeko neurriak sartu behar dira. Nolanahi ere, duen espezifikotasuna dela-eta, erregelamendu bidez zehaztuko da izapide hori nola gauzatu behar den.
- ~ (...)

50. artikulua. Ingurumena, lurralde-antolamendua, hirigintza, etxebizitza, garraioa eta landa eremua.

1.– EAEko botere publikoek behar diren baliabideak jarriko dituzte berma dadin genero-ikuspegia txertatzen dela lurralde-antolamenduaren, hirigintzaren, garraioaren eta etxebizitzaren arloko politikak, arauak, planak eta programak taxutzean, betearaztean eta eba-luatzean; besteak beste, gai hauek hartuko dira kontuan:

a) Emakumeen eta gizonen beharrian desberdinen ezagutza sustatzea ugikortasunari eta etxebizitza-, garraio- eta hirigintza-politikekin lotutako espazioak, azpiegiturak eta zerbitzuak erabiltzeari dagokionez, horretarako diagnostikoak, azterlanak eta sexuaren arabera bereizitako estatistika-datuak eta sektore horietako emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazle espezifikoak eskuragarritasuna areagotuz eta hobetuz.

b) Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzeko gune seguruak sustatzea.

c) Jendartearen aldetik kohesionatuta dauden eremuak eta lurraldeak sustatzea, emaku-meen eta gizonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko eta zerbitzuak eta azpiegiturak ber-dintasun-baldintzetan eskuratzeko, bereziki kontuan hartuta 3.1 artikuluko azken atalean aipatutako faktoreak biltzen dituzten emakumeen egoera.

d) Erraztea etxeko lanak eta pertsonak zaintzeko lanak egitea eta erantzunkidetasunez bateratzea bizitza pertsonala, familia eta lana, eta, oro har, kontuan hartzea ekoizpen- eta ugalketa-arloan sortutako beharrak, bizitzaren iraunkortasuna errazteko helburuz.

e) Sektoreko profesionalen berdintasun-arloko prestakuntza sustatzea.

f) Aipatutako politika eta programak diseinatzerakoan eta gauzatzerakoan gardentasuna eta emakumeen ikusgaitasun eta parte-hartze handiagoa sustatzea, bereziki 3.1 artiku-luaren azken atalean aipatutako faktoreak biltzen dituztenen emakumeena.

~ (...)

Azkenik, komeni da gogoraraztea Berdintasunerako Legearen 19. artikuluan eta hurren-go artikuluetan ezarritakoa Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harrema-netarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenean garatu dela. Horren bi-tartez xedatzen da argitara eman dadila Gobernu Kontseiluaren erabakia, «generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzekoa». Eusko Jaurilaritzak egiten dituen arauak soilik aplikatzen zaizkie ja-rraibide horiek. Hala ere, toki-erakundeek erreferentzia gisa erabil ditzakete, tokiko espa-rruan GEE bat egiteko garaian ager daitezkeen balizko hutsune edo zalantza juridikoen erantzunak bilatzea errazte aldera.

Zentzu horretan, interesgarria da Emakundek eta EUDELe elkarrekin editatutako *Generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa. Toki-erakundeetan ezartzeko prozesuaren eta ezarpenerako tresnen azalpen-gida dokumentua ere kontuan hartzea.*

1.3. 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako

Oro har, 3/2007 Lege Organikoko 15. artikuluan hau ezartzen da: «Emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko da botere publiko guztien jardunean, zeharkakotasun-izaerarekin. Administrazio publikoek printzipio hori modu aktiboan barneratuko dute, euren arau-xedapenak ematean nahiz betetzean, esparru guztietako politika publikoak zehaztu eta horien inguruko aurrekontuak egitean, eta euren jardura guztiak garatzean». Bestalde, 21. artikulua hau zehazten du: «Toki-erakundeek berdintasun-eskubidea barneratuko dute euren eskumenak gauzatzean, eta, horretarako, elkarlanean arituko dira gainerako administrazio publikoekin».

Zehazki, 19. artikulua arabera, izaera orokorreko xedapen-proiektuek eta berebiziko garrantzia duten plan ekonomiko, sozial, kultural eta artistikoek, Ministro Kontseiluak onetsi behar dituztenean, txosten bat izan beharko dute generoan oinarritutako eraginari buruz. Halaber, administrazio publikoek, hiria diseinatzean, hirigintzako politiketan eta hirigintza-plangintza zehaztean eta betetzean, genero-ikuspegia kontuan hartu behar dutela aipatzen da; horretarako, herritarren parte-hartzea eta gardentasuna suspertu eta ahalbidetzeko mekanismoak eta tresnak erabiliko dituzte (31.3 artikulua).

19. artikulua. Genero-eraginaren txostenak.

- ~ Izaera orokorreko xedapen-proiektuak eta berebiziko garrantzia duten plan ekonomiko, sozial, kultural eta artistikoak, Ministro Kontseiluak onetsi behar dituztenean, txosten bat izan beharko dute generoan oinarritutako eraginari buruz.

31. artikulua. Hirigintza, lurralde-antolaketa eta etxebizitzako politikak

- ~ 1. Administrazio publikoetako politika eta planek, etxebizitza eskuratzeko gaian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragingarria izateko neurriak barneratuko dituzte. Era berean, hirigintzako eta lurralde-antolaketa politikak kontuan hartuko dituzte gizarte-talde desberdinen eta familia-egitura desberdinen beharrianak, eta ahalbidetuko dute berdintasun-baldintzetan jotzea hirigintzako zerbitzu eta azpiegiturretara
- ~ 2. Gobernuak, bere eskumenen esparruan, suspertuko du beharrian-egoeran edo baztertuak izateko arriskuan dauden emakumeek, eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeek etxebizitza eskuratzeko, bereziki, emakume horiek, kasu batean zein bestean, adingabeko seme-alabak dituztenean euren ardurapean bakarrik.
- ~ 3. Administrazio publikoek, hiria diseinatzean, hirigintzako politiketan eta hirigintza-plan-gintza zehaztu nahiz betetzean, kontuan hartuko dute genero-ikuspegia; horretarako, bereziki, herritarren partaidetza eta gardentasuna suspertu eta ahalbidetzeko mekanismoak eta tresnak erabiliko dituzte.

1.4. 7/2015 Legegintzako errege deketua, urriaren 30ekoa, lurzorua eta hiri-birgaitzearen legearen testu bategina onartzen duena

7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, alde batetik, berariaz aipatzen du tratu- eta aukera-berdintasuna lurralde- eta hiri-garapen jasangarriaren printzipioari erreferentzia egiten dionean. Beste alde batetik, administrazio publikoek (eta, zehazki, lurralde- eta hirigintza-antolamenduko eskumenak dituztenek) lurzorua erabileraren antolamenduan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioari jarraitu behar diotela ezartzen du.

3. artikulua. Lurralde- eta hiri-garapen jasangarriaren printzipioa

- ~ 2. Garapen jasangarriaren printzipioaren arabera, aurreko apartatuan aipatzen diren politikek baliabide naturalen arazoizko erabileraren alde egin behar dute, ekonomia, enplegu, gizarte-kohesio, tratu- eta aukera-berdintasun, pertsonen osasun eta segurtasun, eta ingurumenaren babesaren eskakizunak harmonizatuz, (...)

20. artikulua. Lurzorua erabiltzeko oinarrizko irizpideak

- ~ 1. Atariko tituluan eta I. tituluan, hurrenez hurren, adierazitako printzipioak eta eskubide eta eginbeharrak gauzatzeko, administrazio publikoek, eta, bereziki, lurralde- eta hirigintza-antolamenduan eskudun direnek, hauek egin beharko dituzte:
- ~ (...)
- ~ c) Lurzorua erabileraren antolamendua egiten dutenean, honako printzipio hauei erantzutea: irisgarritasun unibertsala, emakume eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna, mugikortasuna, efizientzia energetikoa, ur-hornikuntzaren bermea, arrisku naturalen eta ez-behar larrien prebentzioa, kutsaduraren aurkako prebentzioa eta babesa eta osasun zein ingurumenarentzat izan ditzakeen ondorioak mugatzea.

2. NORK EGITEN DU GEE-A?



Berdintasunerako Legearen 20. artikulua betez, arau baten GEEa egiteko ardura **hura sustatzen duen organoarena da; HAPOaren kasuan, udal-hirigintza kudeatzeko eskumena duen organo edo unitate administratiboa**. Organo horrek du arautu nahi den gaiaren gaineko jakintzarik handiena.

Berdintasunerako Legearen 10. artikuluan 2/2016 Legearen 18.1.27 artikulua ezarritakoari jarraikiz, tokiko administrazio guztietan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko politiken bultzadaz, programazioaz, aholkularitzaz eta ebaluazioaz arduratzen den entitate, organo edo unitate administratibo bat egon behar da dagokion jarduketaren eremuan, besteak beste, funtzio honekin: «Bakoitzak bere administraziooko sailei eta beren mendearen dauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea».

Hortaz, berdintasun-egitura horien erantzukizuna izango da (baldin eta badaude) aholkularitza ematea eta hirigintza-kudeaketaren eskumena duen organoarekin lankidetzan jardutea, ez bakarrik GEEa gauzatzeko, baizik baita HAPOa gauzatzeko prozesuan genero-ikuspegia integrazteari laguntzeko ere. Horretarako, oso garrantzitsua da hasieratik hirigintzako organo eskudunaren eta berdintasunekoaren artean koordinazioa egotea, kanpoko taldeak kontratatatu aurreko fasean ere.

Berdintasunerako Legean ez da ezartzen nola egin behar diren HAPOen generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak, baina helburua aipatzen da: «emakumeen eta gizonen egoeran sor dezaketen eragin negatiboa indargabetzeko neurriak, eta, bestetik, hautemandako desberdinkeriak desagerrarazteko edo gutxitzeko eta sexuen berdintasuna sustatzeko neurriak».

Erabiltzen den formula gorabehera, GEEak legeak esleitzen dion funtzioa bete dezan eta planteatzen den hirigintza-prozesuaren emaitzan benetako eraginik ez duen izapide formal soilak izan ez dadin, **honako hau bermatu behar da**:

- a) **HAPOaren dokumentua genero-ikuspegia egiatan kontuan hartuta egiten dela. Horretarako, HAPOa idatziko duen diziplinarteko taldean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan gaikuntza egokia duten profesionalak egon behar dira**¹. Gaikuntza hori bermatzeko, udalak zerbitzua azpikontratatzeko erabakitzen badu, HAPOaren idazketa-taldea kontratatatzeko egingo

1 Gaikuntzari dagokionez, adibide gisa, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak betekizun bat ezartzen duela berdintasuneko teknikarien plazak eskuratzeko; alegia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ikastaro bat gainditu izana (150 ordukoa edo gehiagokoa eta unibertsitate edo administrazio publiko batek emana). Prestakuntza-orduek ikastaro bakarrean izan behar dute; ezin dira metatu 150 ordu baino gutxiago irauten duten alor horretako prestakuntza-jarduerak. Horixe xedatzen baitu 2022ko irailaren 8ko Aginduak, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarenak, zeinaren bidez egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegu publikoa finkatzeko prozesu bereziak eta enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuen deialdia.

diren kontratu publikoen baldintza-agiriei Berdintasunerako Legearen 22. artikuluan xedatutakoari jarraituko diote.²

- b) **GEEtik eratorritako proposamenak HAPOan kontuan hartzea, eta kontu hartzeko garaian eta erabakiak hartzeko garaian, hirigintzan nahiz emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eskumenak dituzten udal-organoek parte hartzea.** Hala, kontuan izan behar da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna tokiko administrazio guztien eskumen bat dela, indarrean dagoen legeriari jarraikiz. Beraz, berdintasuneko organo edo unitate administratibo espezifikorik ez egon arren, eskumen hori bere gain hartzen duen organo bat egon behar da udalerrian; biztanleria txikiko udalerrietan, baliteke hirigintzako eta berdintasuneko eskumenak organo berak edukitzea.

Gainera, oso gomendagarria da HAPOaren prozesua gidatzen eta horri buruzko erabakiak hartzen dituzten politikariek eta teknikariek gutxieneko gaikuntza eta sentiberatasuna izatea hirigintzan bezala generoan ere. GEEa egiteaz gain, pertsona horientzat hirigintzaren eta generoaren inguruko prestakuntza antolatzea funtsezkoa da HAPOa egiteko prozesuan genero-ikuspegia integratzeko lege-betebeharra betetzeko.

2 *Kontratazioko berdintasun-klausulei buruz, ikusi:* <https://www.emakunde.euskadi.eus/informazioa/berdintasunaren-aldeko-klausulak/webema01-contentemas/eu/>

3. NOLA EGITEN DA HAPO BATEN GEE-A?



3.1. Kontuan hartu beharreko elementuak

Espazioa konfiguratzeko modua da (nola zatitzen den, nola diseinatzeko den, funtzio sozialak nola banatzen diren) **pertsonak elkarren artean harremanetan jartzeko eraren baldintzatzaile nagusietako bat, eta espazioa eskura izatea, edo ez izatea, oinarritzko baliabideetara.**

Esparru eraiki bat da hiria, berreraiki daitekeena, biztanleen bizi-baldintzak eta haien arteko harremanak hobetzeko. Berreraiki daitekeen neurrian, hiria espazio politiko bat da, non herritarrek bere nahiak, aldarriak eta eskariak taxutzen baitituzte, HIRIRAKO ES-KUBIDEA osoki baliatzeko. (Aida Guillén, s.f.)

Feminismoak funtsezko zenbait elementu edo jarraibide eskaini ditu, hiri eraikiaren erabilera- eta gozatze-eskubidean ageri diren genero-funtzeko joerei aurre egiteko. Garrantzitsuenak laburbilduko ditugu, zeinak hiri-diseinuaren generoaren araberako eraginen aurretiazko ebaluazio bat egiteko gako kontzeptualak baitira.



Aniztasuna: espazioaren genero-neutraltasunik eza aitortzea

Espazioak pertsonen behar desberdinei erantzun ahal izatean datza aniztasuna, edozein direla ere generoa, sexua, adina, desgaitasun funtzionala, jatorria, kultura, kondizio soziala, etab.

Horretarako, pertsona, jarduera eta erabilera desberdinak egoteko aukera ematen duen nahasketa sozial, fisiko eta funtzionala bultzatzea izan behar da hirigintzaren helburua. Kontuan izan behar dira pertsonen bizipen eta bizitza askotarikoak, eta horietatik eratorritako behar desberdinak, eta, hortaz, esparruaren eraikuntza bidezkoago bat.

Hala ez bada, soilik erabiltzaile bakar bat, entitate unibertsal bat, neutraltasun eta inklusibotasun faltukoa, kontuan hartzen duten espazioak agertuko dira. Unibertsaltasun horrek kanpoan uzten ditu bizipen nagusiaren «normaltasunaren» barruan (klasea, generoa, sexua, jatorria eta kultura, etab.) ez dauden jarduera eta pertsona guztiak.

Espazioa eta genero-rolak elkar lotuta eta sozialki eraikita daude; beraz, espazioa ezin da sekula neutrala izan genero-ikuspegitik. Neutraltasunik ez hori hiriak biztanleei hura okupatzeko eta erabiltzeko eskaintzen dizkien aukeretan zertzen da; alegia, hiriaren eraikuntza bideratu duten plangintzetan. Baita hiri-espazioak barne hartu ditzakeen iruditeria sinboliko eta esanahiz betetan ere.

Hori dela eta, aztertu egin behar dira haren erabilera, bertan izandako bizipenak eta eragile sozialen pertzepzioak.

Interkonexioa: publikoa/pribatua dikotomia gaingitzea.

Espazio publikoaren eta pribatuaren bereizketa eraikuntza binomiko bat da, zeinetan oinarritzen baita beste mota bateko harremanen eraikuntza: kolektiboa dena eta banakoa dena, ikusgarria eta gordea, baloratzen dena eta ez dena baloratzen, ordainduta dagoena eta ez dagoena ordainduta. Emakumeak esparru pribatuarekin lotura izatea (areago menderatzen ditu, eta publikotik kanporatu) espazioen kudeaketa eta banaketa desorekatu baten ondorio da. Adibidez, lantokiak, industrialdeak, enpresa-nitxoak, fabrikak, parke zientifiko eta teknologikoak, eta bestelakoak biztanlegune, asistentzia-zentro, haurtzaindegia, ikastetxe, zentro sanitario eta abarretatik urrun egoteak emakume asko kanporatu ditu «axola duen» ekonomiako erreferente oso maskulinizatu horietatik.

Espazio publikoa eta pribatua elkarrengandik bereizita (herritartasun-eskubideak espazio publikoan soilik eratorriko balira legez), kasu askotan, «etxe barruko» botere-abusuak ezkutuan geratzen dira, espazio pribatuan herritartasun-eskubidea desagertuko balitz bezala. Gainera, esfera publikotik bazter uzten diren zainketak ikusezin bihurtzea errazten da.

Publikoa eta pribatua berriz definitzeak, eta tarteko espazioak sortzea eta definitzeak, aukera ematen dute bereizketa hori desagerrarazteko; hots, pribatua kolektibizatu, eta erdi-publiko bihurtu diren lekuak sor daitezke, continuum bat eratuz.

Bi espazioen arteko bereizketa desagerrarazteko beste modu bat da pribatua ondasun kolektiboan (adibidez, zainketa) sortzailatzat birkontzeptualizatzea, eta etxea zeregin produktibo ordainduetarako erabiltzeko birkontzeptualizatzea.

Parte-hartzea: analisisian emakumeen bizipenak eta pertzepzioak sartzea.

Benetako berdintasuna erdiesteko, oinarritzkoa da hiria emakumeen eguneroko bizipenak, eta hiriaz eta etxeaz dituzten pertzepzioak bilduz diseinatzea. Emakumeen subjektibotasuna oinarritzko ardatz bat da espazioan dituzten bizipenak eta hiria sentitzeko modua aztertzeko. Oso adibide argigarriak dira emakumeek segurtasunaz duten pertzepzioari buruz egin diren hainbat ikerketa eta analisi. Horien arabera, beldur-pertzepzioa biziagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, batik bat gauez. Ondorioz, emakume askok une jakin batzuetan hiria eta bertako zenbait espazio saihesten dituzte. Emakumeek espazioaz jabetzeko gaitasun txikiagoa izatea eragiten du horrek, eta, beraz, hiria erabiltzeko eta hartaz gozatzeko eskubidea mugatzen die.

Ikusgarri egitea: ugalketa- eta zainketa-zereginei balioa ematea.

Publikoaren eta pribatuaren bereizketarekin lotuta, hirigintza feministaren proposamenak agerian laga nahi du zentzugabea dela produktiboa dena eta ugalketakoa dena bereiz aztertzea (zainketarekin erlazionatutako zeregin guztiak sartzen dira kategoria horretan); izan ere, ugalketa-zereginek sortzen dituzte ekoizpen-zereginak egiteko behar diren baldintzak. Halaber, ikusgarri egin nahi du hiriak ekoizpen-prozesuen eta jarduera ordainduen beharrei jarraituz soilik eraikita eta antolatuta daudela (adibidez, erabile-ra bakarreko gunek egotea, ekipamenduen kontzentrazioa, zerbitzuek eta merkataritza-guneei joan-etorri luzeak egin behar diren kokapenak izatea, irisgarriak eta kalitatezkoak diren berdeguneen eta oinezkoentzako gunek ez egotea, zerbitzuz hornitu baino lehen eraikitzea etxebizitzak).

Ekoizpena/ugalketa dikotomia gainditzeak bizitza sozialaren sailkapen bat (androzentrikoa, legitimizatua eta naturalizatua) zalantzan jartzea esan nahi du; izan ere, nagusiki emakumeek egiten dituzten etxeko lanak ikusezin bihurtzean, emakumeei eskubi-deak eta balorazio soziala kendu zaizkie. Ondorioz, hiriaren diseinuari eta kudeaketari buruzko erabakiak hartzen parte hartzeko behar diren boterea eta entzutea kendu die.

Hiri-espazio batean ugalketa-zereginak errazteko, gutxienez hiru premisa bete behar dira:

- ~ **Autonomia erraztu behar da:** pertsonen autonomia dute, baldin eta okupatzen dituzten espazioak seguruak iruditzen bazaizkie, mugarik gabe erabiltzeko adina fidagarriak, eta irisgarritasun unibertsalekoak badira auzo-esparruan eta eguneroko bizitzarako behar den hiri-espazioan, kontuan hartuta pertsonen bereiztasun fisikoak (askotarikoak sexuari, adinari, gaitasun fisikoari, hizkuntzari, orientazio sexualari eta abarri dagokienez). Autonomia askatasunaren eta ahalduentzaren sinonimoa da, bai hartaz gozatzen duenarentzat, bai haren ingurunearentzat, hirugarrenek zainketak ematea erraztea duelako eta zainketon beharra murrizten duelako.

~ **Gertutasun-eskalak errespetatu behar dira.** Gertutasun esaten zaio ekipamenduak eta zerbitzuak hurbil edukitzeari (espazioan eta denboran), eta oztoporik ez egotea harreman-guneetara, eguneroko ekipamenduetara, garraio publikoaren geltokietara eta saltokietara oinez iristeko, edonor oinez mugitu ahal izan dadin eguneroko jardueretan. Hiru gertutasun-eskala identifikatzen dira, maiztasunaren eta biztanleriak dituen beharren arabera: bizilagun-eskala (gertu-gertuko ingurunean dauden ekipamenduen eta zerbitzuen berrikuspena), auzo-eskala eta auzoz gaindiko eskala. Gertutasuna beharrezkoa da esfera pertsonala, produktiboa, ugalketakoa eta komunitarioa eraginkortasunez konbinatzeko. «Ohiko» espazioetan lekualdatzeak luzeago/gehiago badira, nahitaez egin behar zaie uko jarduera batzuei eguneroko zereginak egin ahal izateko.

~ **Espazioak erabilera anitzekoak izatea eta haiek erabiltzea sustatu behar da.** Pertsonen aldibereko presentzia jarraitutik, eta kaleetako, ekipamenduetako eta espazio komunetako jarduera eta erabilera-dentsitateak sortzen da esparru baten bizitasuna. Pertsonak elkartzeari, sozializatzeari eta elkar laguntzeari mesede egiten dio horrek, bai eta zainketa kolektiboari ere. Eguneko ordu zehatzetan bakarrik erabiltzen diren eremuen (erabilera bakarreko eta dentsitate txikiko bizitegi-eremuak, merkataritza-guneak edo negozio-guneak) bizitasunik ezak, eta eraikinen eta kalearen arteko harremanik ezak segurtasun-gabezia sortzen dute, eta indibidualismoa sustatzen, zainketa-zereginak zailduz.

Memoria: emakume ahaztuak oroitaraztea.

Hiriaren analisiari dagokionez, kritika feministaren kezka nagusietako bat da emakumeen ekarpenak ikusgarri egitea eta arlo horretan (tradizionalki gizonak nagusi direna) sartzeko dauzkaten zailtasunak agerian jartzea. Beraz, helburuetako bat da sektorean ikuspegi feminista eta inklusiboarekin lan egiten duten profesionalak ikusgarri egitea.

Era berean, hiriaren espazio fisikoan islatuta dago biztanleen memoria historikoa; hori dela eta, iruditeria kolektibo horretan emakumeak egotea (alegia, kaleak, eraikinak, estatutuak, parkeak eta lorategiak eskaintzea, eta horiei emandako kokapena), berdintasunaren aldeko aurrera pausoetan egin behar den ibilbidearen isla da.

Ordezkarritasuna orekan egongo da, baldin eta pertsona guztien egiazko aintzatespen eta agerikotasun sinbolikoa nabaritzen bada, eta era bidezkoan balioa ematen bazaie memoriari, ondare sozial eta kulturalari, bai, halaber, herritarrek hiri-erabakietan parte hartzeari ere.

Aintzatespenik eta agerikotasunik ez badago, ezin da eraiki gizarte berdinzale eta bidezkoago bat.

3.2. Hapo-ak arautzen duen esparruaren analisi-dimentsioak

GEEa behar bezala egiteko beharrezkoa den urrats nagusia proposamenak emakumeen eta gizonen egoeran izan dezakeen eragina ebaluatzea da. Horretarako, aztertu behar dute HAPOan proiektatu den jarduketak ondorio positiboak edo kontrakoak izan ditzakeen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean. Xedapen orokorren izaera juridikoa duten planetan –bereziki, lurralde- eta hirigintza-planei– genero-inpaktuaren aldez aurreko ebaluazioa egin behar da, eta berdintasuna sustatzeko neurriak sartu behar dira.

Hala, aipatzekoa da gida honek, HAPOaren generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluaziorako erabilgarria izateaz gain, helburu duela hirigintza-plangintzaren idazketa-taldeei HAPO berdinazale eta inklusibo bat sortzeko lanen hasieratik kontuan hartu behar diren gaietarako (egiturazko antolamenduari buruzkoak) sarbidea erraztea.

Gainera, atal honen amaieran, GEEa egiteko eta, hala badagokio, HAPOa idazteko lagungarriak izan daitezkeen beste kontu batzuk gehitu dira, nahiz eta (1) antolamendu xehatuarekin, (2) etxegintza-ordenantzekin edo (3) hirigintza-ordenantzarekin harreman estuagoa duten kontuak izan. Halaber, hiri-antolamendukoak izan ez arren, ikuspegi bateratua aberastu dezaketen beste kontu batzuk biltzen dira; zehazki, udal-kudeaketa/-administrazioaren edo espazio publikoen mantentzearen arloei dagozkie, besteak beste (4).

Horrez gain, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onetsitako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako xedapenak (genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoak) bildu dira IV. eranskinean.

Hasierako egoeraren analisia honako dimentsio hauetan dago banatuta (I. eranskinak egitura berari jarraitzen dio):

- ~ Kudeaketa eta zeharkakotasuna.
- ~ Hiri-espazioaren diseinua.
- ~ Azpiegiturak eta ekipamenduak.
- ~ Mugikortasuna.
- ~ Hautemandako segurtasuna.
- ~ Etxebizitza.



3.2.1. OROKORRAK

Jarraian, egiturazko antolamenduaren arloan HAPOak antolatu beharreko eremua aztertzeko dimentsio bakoitzean kontuan hartu beharreko gaiak zerrendatzen dira.

KUDEAKETA ETA ZEHARKAKOTASUNA

- ~ Ordezkaritza orekatua eta dinamika espezifikoak dituzten **genero-ikuspegiaren arabera parte hartzeko prozesuak** egotea, sexuan sexuko iritziak jasotzeko.
- ~ **Genero-ikuspegia txertatzea** (sexuaren arabera bereizitako diagnostikoak eta datuak egotea, emakumeek eta gizonek espazio publikoan dituzten behar ezberdinak ezagutzea, berdintasuneko prestakuntza, hizkera eta iruditeria ez-sexista erabiltzea, etab.).

HIRI-ESPAZIOAREN DISEINUA

TRINKOTASUNA ETA ERABILERA-NAHASKETA

- ~ **Erabilera bakarreko esparruak ekiditea.**
- ~ Hirietan **hazkunde sakabanatuak ekiditea**; auzo barreiatuak, hirigunetik urrun daudenak eta bitarte horretan urbanizatu gabeko eta nahitaez igaro beharreko eremu hutsak eratzen dituztenak.
- ~ **Espazio abandonatuak edo erabilerarik gabeak ekiditea** toki arriskutsu bihurtu ez daitezen.
- ~ **Aisialdi eta merkataritza-gune guztien pilaketa ekiditea** erdigunean. Beheko solairuei merkataritza-erabilera ematea eta gertutasun-merkataritza sustatzea.
- ~ **Landa-eremuan, saltokiak eta tokiko zuzkidurak egotea aurreikustea.**

EGOTeko HIRI-ESPAZIOAK: ANIZTASUNA ESPAZIO PUBLIKOAN

- ~ **Udalerriak egoteko espazioak izatea.**
- ~ **Ibilbideen eta espazio publikoaren sarera fisikoki lotuta dauden parkeak eta berdegune egokiak diseinatzea.**
- ~ **Hirian eremu txikiak sortzea, heterogeneoak eta erabilera askotarikoekin**, erabileren nahasketa eta erabilera intentsiboak sustatuta, zainketa kolektibo edo komunitarioko ekimenen mesedetan.
- ~ **Topagune nahikoak egotea**, urteko sasoi guztietan erabiliko diren **espazioekin** (egurats zabaletik, eguzkitik eta haizetik babestuak) .

AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK

Azpiegitura eta ekipamendu hauek aztertzea (kasu guztietan beharrezkoa izango da balaratzea azpiegiturak eta ekipamenduak askotarikoak diren, ongi bananduta dauden, udalerraren eskariari erantzuten dioten eta irisgarritasun, kokapen, argiztapen, tarteko espazio eta erabilera-aniztasuneko ezaugarri egokiak dituzten):

- ~ **Hezkuntzakoak eta adingabekoentzat:** besteak beste, haur-eskolak, ikastetxeak, institutuak, lanbide-heziketako zentroak, ludotekak...
- ~ **Sanitarioak eta sozialak:** adibidez, osasun-zentroak, ospitaleak, oinarrizko gizarte-zentroak eta langabezia-egoeran daudenentzako arreta-zentroak.
- ~ **Emakumeentzat eta emakume elkar-teentzat:** besteak beste, emakumeen etxeak, ahalduntze-eskolak, informazio-, arreta- eta aholkularitza-zentroak, eta indarkeria matxistaren aurkako baliabideak.
- ~ **Nagusientzat eta mendekotasuna dutenentzat:** adibidez, goizeko gelak, jan-gelak, nagusientzako edo mendekotasuna dutenentzako eguneko edo gaueko zentroak, eta erretiratutakoentzako egoitza-zentroak.
- ~ **Gazteentzat:** besteak beste, gaztegunek, gaztetxeak, gaztetxokoak, lokalak, harremanetarako espazioak, liburutegiak...
- ~ **Kirolekoak eta kulturakoak:** emakumeen eta gizonen gustu eta erabilera ezberdinak kontuan izan behar dira. Horretarako, besteak beste, erabilera anitzeko espazioak, igerilekuak, gimnasio publiko eta pribatuak, eta jardueretarako lokalak sustatzea komeni da.

MUGIKORTASUNA

OINEZKO MUGIKORTASUNAREN DISEINUA

- ~ **Ibilgailuetarako bide nagusietan oinezkoentzako orde-zko ibilbideak egotea,** oinezkoek irisgarriagoa den ibilbide jarraitu bat eduki ahal izan dezaten. Oinezkoentzako ibilbide horiek **sare bat sortu** behar dute.
- ~ **Atsedeen hartzeko** eta **jolasteko** guneak, eta **motorrik gabeko garraio alternati-boetarako** bideak egotea, **baita eragin bisuala eta akustikoa indargetzeko ere** (esaterako, zuhaitzak, loreontziak edo berdeguneak).
- ~ **Bi haur-kotxe** edo **gurpil-aulki igaro** ahal izateko adinako zabalera duten **espa-loiak** sortzea.

BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTSAUNA

- ~ Udalerriko espazio publiko nagusiak auzoekin **konektatzen dituzten bizikleta bidezko mugikortasunerako espazioak** egotea.
- ~ **Bizikleta bidezko mugikortasunerako espazioen jarraitutasuna.**

HAUTEMANDAKO SEGURTASUNA

IKUSTEA ETA IKUSIA IZATEA (ARGIZTAPENA ETA IKUSEREMUA)

- ~ **Ikuspen urriko bidegurutzerik ez sortzea** eta ikuseremuaren hobekuntza sustatzea.
- ~ Hirian zehar banatzea **jarduera-guneak**.
- ~ HAPOaren dokumentazioan **ez-segurutzat jotzen diren puntuak identifikatzea**.

ETXEBIZITZA

ERAIKINEKO ESPAZIO KOMUNAK

- ~ **Familia mota desberdinak daudela** kontuan izatea, etxebizitza malguak eta moldakorrak ahalbidetuz.
- ~ Etxebizitza-erabilera ekoizpen-erabilerekin bateragarri egiteko aukera aurreikustea.

3.2.2. BESTE BATZUK

Bestalde, aurretik aipatu den moduan, jarraian zerrendatzen direnak, HAPOan genero-ikuspegia txertatzeko edo GEEa egiteko lagungarriak izateaz gain, antolamendu-maila xeheagoei dagozkien hirigintza-tresnak (plan partzialak, plan bereziak, etab.) (1), etxegintzako ordenantzak (2) edo urbanizazio-ordenantzak (3), udal-kudeaketa/-administrazioaren edo espazio publikoen mantentzearen arloei dagozkienak besteak beste (4) idazteko erreferentzia izan daitezke, eta lagungarriak izan daitezke GEEa egiteko garaian, eta, hala badagokio, HAPOa idazteko ere bai.

KUDEAKETA ETA ZEHARKAKOTASUNA

- ~ Espazio publikoaren egoera eta mantentzea kudeatzeko sailak egotea, eta **emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua** izatea. (4)
- ~ Hirigintza-plangintzara bideratutako diziplinarteko taldeak egotea, kide direla **hirigintzan eta generoan gaikuntza egokia duten pertsonak**. (4)
- ~ Espazio publikoaren kudeaketari dagokionez, **hirigintzaren eta berdintasunaren arloen arteko kudeaketa koordinatua** egotea. (4)

HIRI-ESPAZIOAREN DISEINUA

EGOTeko HIRI-ESPAZIOAK: ANIZTASUNA ESPAZIO PUBLIKOAN

- ~ **Parke eta berdegune egokien diseinua**: sektore-egitura argiarekin, eta parke barruko bideen hierarkia eta bide nagusia zehatz eta argi adierazita. Diseinuak bide eman behar du eremuok erraz garbitu eta mantendu ahal izateko, eta behar bezala argiztatzeko. (1)
- ~ **Haurrentzako parkeak egotea**: adin desberdinetarako bereizita eta adin horietara egokituta, haurtxoak arropaz aldatzeko eta artatzeko, pribatutasunez edoskitzen emateko, adingabeen eta laguntzaileen arteko interakzioa ahalbidetzeko eta laguntzaileak egoteko leku atseginekin. Gainera, urteko sasoi guztietan erabiliko dela aurreikusi behar da (egurats zabaletik, eguzkitik eta haizetik babestuta egon behar dute). (1)
- ~ **Topagune nahikoak egotea**, urteko sasoi guztietan erabiliko diren **espazioekin** (egurats zabaletik, eguzkitik eta haizetik babestuak). (1)
- ~ **Gerizpeak eta atsedeneak egotea**. (1)

SEINALEAK

- ~ **Orientaziorako elementuak**; besteak beste, iturriak, monumentuak eta hiri-mugarria. Horiei guztiei esker erraz kokatzen baita norbera hirian. (1)
- ~ Ibilbide osoan **seinale argi** eta irakurterrazak egotea, leku irisgarri eta agerikoe-tan kokatuak, bai kaleetan, bai atarien zenbakietan, plazetan eta etorbideetan. (3)
- ~ **Oinezkoentzako seinaleak**. (3)

- ~ **Irisgarritasun-mapak egotea.** (3)
- ~ Ikonografian **seinale ez-sexistarik egotea.** (3)

HIRI-ALTZARIAK ETA EGONLEKUAK

- ~ **Gerizpeak eta atsedeen-guneak egotea.** Zuhaitzek ingurunearekiko egokiak izan behar dute eta ez dute inguruko ikuspena oztopatu behar. (1)
- ~ **Zerbitzu sanitario publikoak egotea** (1), baita ugalketa-zereginak gauzatzeko eremuak ere, hala nola jaten emateko, pixoihalak aldatzeko, etab. (3)
- ~ **Eserleku edo atsedeenleku nahikoa egotea,** pertsona guztietara eta egoera guztietara egokituak (adin nagusiko pertsonak, bularreko haurrak edo haur-kotxetxoak dituztenak, gorpil-aulkia darabiltenak). (3)
- ~ **Iturri eta zaborrontzi nahikoak egotea.** (3)
- ~ **Zaborrerako eta birziklatzeko altzari** irisgarri eta erabilerrazak, estetikoki atseginak eta oztopo bisuala ez direnak. (3)

MUGIKORTASUNA

OINEZKO MUGIKORTASUNAREN DISEINUA

- ~ Ibilbide jarraituetan, **oinezkoen pasabideak espaloien altuera berean** egon behar dira. (3)
- ~ **Hiritik oinez ibiltzeko mapa bat** egotea, eguneroko mugikortasun ezinbestekoaren logika zirkularra **kontuan hartuta.** (4)

BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUNA

- ~ **Bizikleta bidezko mugikortasunerako espazio babestuak** egotea, oztopo-zutoi-ekin edo banatzaileekin, edo ibilgailu-trafikutik behar bezala zedarrituta eta bereizita. (1)
- ~ **Bizikleta-aparkalekuak** egotea. (1)

GARRAIO PUBLIKO BIDEZKO MUGIKORTASUNA

- ~ **Garraio publikorako sarbideek, haien ibilbideek eta aldaketek ikuspen ona izan behar dute** (1); erabiltzaileak zapalduko duen espazioaren ikuspegi global (3) eta argi bat izan behar du, eta aldi berean gainerakoek erabiltzailea ikusi behar dute. (3)

- ~ **Larrialdi-deiak** egiteko puntuak egotea. (3)
- ~ **Garraio-aldaketetan segurtasuna bermatzea**: argiztapena, toki egokia aukeratzeta, zaindutako eremuak egotea... (3)
- ~ **Geltokiek eta sarrerek eguraldi txarretik babestu behar dute, eta eserlekuak edo itxaroteko tokiak eduki behar dituzte.** (3)
- ~ **Garraio publikoko geltokien argiztapen** ona bermatu (3). Itxaroten ari den pertsonak kalea argi ikusi behar du, eta alderantziz (1).
- ~ Garraio publikoa interkonektatuta egotea, **hiriko auzoak lotzekoa**, eskema polizentriko bati jarraituz. (4)
- ~ Biztanle guztientzako geltokiak egotea eta horietara iristeko oinez 10 minututik gora egin behar ez izatea. (4)
- ~ Gaueko mugikortasunaren garraio publikoaren mapa bat egitea. (4)

HAUTEMANDAKO SEGURTASUNA

IKUSTEA ETA IKUSIA IZATEA (ARGIZTAPENA ETA IKUSEREMUA)

- ~ **Aurreikus daitezkeen bideak ekiditea** (zubiak, eskailerak, tunelak edo igogailuak) (1). Saihestu ezin badira, **zainduta egon behar dute**, eta **ikuseremu zabala** eduki (ispiluak erabiltzea, eta material gardenak, argiztapena). (3)
- ~ **Argiztapen nahikoa ez duten espazio publikoak saihestea**. Igarobideetan eta igarotzeko eremuetan argiztapen nahikoa egotea gauez, zuhaitzekin eta bestelako landarediarekin bateragarriak diren argiak erabiliz. (3)
- ~ **Aparkaleku** handiek **argiztapen eta zaintza nahikoa** izan behar dute. (3)
- ~ Barnealdea ikusteko aukera ematen duten (2) eta kale nagusira ematen duten **atari beiradunak** (1).
- ~ Ikuspen urria eragin dezaketen **eremu arkupedunak ez egotea**. (1)
- ~ **Atariaren eta espazio publikoaren artean** ibilbidea argi ikustea eragozten duen **tarteko espaziorik ez egotea**. (1)

ETXEBIZITZA

ERAIKINEKO ESPAZIO KOMUNAK

- ~ **Atari zabalak, beiradunak eta ikuspen onarekin.** (1)
- ~ Eraikineko bizilagunen arteko **harremanak susta ditzaketen espazio komunak** sortzea. (1)
- ~ **Eskailera zabal ongi argiztatuak**, ikuspenik gabeko eremu arriskutsurik gabeak. (1)
- ~ **Biltegitratzeko-espazioak eremu komunetan** (adibidez, bizikletak edo haur-kotxeak uzteko trastelekuak), iristerrazak. (1)
- ~ **Kanpoaldearen kontrol bisuala duten espazio komunak** (teilatu lauak, solairuan solairuko topaguneak, atariak...). (2)
- ~ **Arropa esekitzeko espazio komunak, etxebizitzetan eseki ezin daitekeenean.** Arreta berezia jarriko zaie toki horien irisgarritasunari, segurtasun-baldintzei eta kontrol bisualari. (2)

ETXEBIZITZAREN DISEINUA

- ~ Etxebizitzak **ugalketa-lana** (zainketa, arroparen zikloa, janariaren zikloa...) kontuan izanda diseinatzea eta etxebizitzak **ekoizpen-erabilerak** izateko aukera aztertzea. (2)
- ~ **Terrazen garrantzia** aztertzea, kanpora irteteko eta auzokoekin balizko harreman kolektiboak ezartzeko esparruak direlako. (2)

GELEN DISEINUA ETA ETXEBIZITZAREN BANAKETA

- ~ **Biltegitratze-esparru nahikoa** diseinatzea, gela bestela antolatu eta janzteia baldintzatu gabe. (2)
- ~ Zainketa-zereginak **agerian dauden sukalde zabalak** diseinatzea. (2)
- ~ **Antzeko tamaina duten gelak**, aurrez erabakitako erabilerarik gabekoak. (2)
- ~ **Sarbide kolektiboko komunak (ez suite eran), mendekotasuna duten pertsonen (adingabeak, adintsuak edo desgaitasun funtzionala dutenak) zainketa-zereginak errazteko nahikoa zabalak direnak.** (2)

4.


ZEIN PROZESURI JARRAITU BEHAR ZAIÓ? GEE-A HAPO BAT EGITEKO IBILBIDEAN



4.1. HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKOR BAT EGITEKO PROZESUA

Hiri Antolamenduko Plan Orokor bat sortzeko prozesua honako fase hauetan egitura daiteke, genero-ikuspegia kontuan hartuta:

Oinarri honetatik abiatuta, honako hau da prozesu horren esparruan GEE bat genero-ikuspegia barne hartuta egiteko ibilbidearen proposamena:



4.2. 1. FASEA: PRESTATZE-JARDUKETAK

Fase honetan, zeregin hauek egingo dira:

- ~ Lanen hasiera. Kartografia eta aurreko dokumentuak prestatzea.
- ~ Aurretiazko azterlanak egitea.

- ~ Proiektuaren enkargua: idazketa-talde teknikoa izendatzea eta informazioa biltzea.
- ~ Koordinazio administratiboa sustatzeko neurri eta jarduketa zehatzak.
- ~ Herritarrek parte hartzeko programa (HHPH).

Araua egiteko garaian, proposamenak emakumeen eta gizonen egoeran izan dezakeen eragina ebaluatu beharko da. Horretarako, aztertu behar da etorkizuneko HAPOrako aurreikuspenek ondorio positiboak edo kontrakoak izan ditzaketen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.

Fase honetan genero-ikuspegia sartzeko, hauek dira jarduketa-proposamenak:

A) IDAZKETA-TALDE TEKNIKOARI DAGOKIONEZ, ETA DIAGNOSTIKOA ETA HASIERAKO HELBURUEI EGITEARI DAGOKIENEZ ERE:

Idazketa-talde teknikoa definitzeko garaian, kontuan hartu behar da arduradun izenda daitezkeela udal-zerbitzu teknikoak edo kanpoko idazketa-talde tekniko bat.

Edozein kasutan eta gida honen 2. atalean aipatu bezala, beharrezkoa da GEEa egingo duten edo egiteko prozesuan aholku emango duten pertsonak hirigintzan eta berdintasunean gaikuntza egokia dutela bermatzea.

Bi kasuetan, **HAPOaren idazketa bultzatzen duen zerbitzua (halakorik balego) berdintasun-unitatearekin koordinatu beharko da prozesuaren fase guztietan** eta taldea eratu baino lehen.

Idazketa-taldeak hirigintza-informazioa idatziko du, baita diagnostikoa eta hasierako helburuak ere. Diagnostiko orokorrak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko atal bat izan behar du, proiektu osoan zeharka kontuan hartzearen kalterik gabe.

HAPOa egiteko diagnostikoetan sexuaren arabera bereizitako analisi bat egin beharko da, eta l. eranskinean proposatutako dimentsioak eta aldagaiak sartu beharko dira. Neurrien diseinua errazte aldera, diagnostikoak genero-desberdintasunak edo -arrakalak identifikatzeko atal espezifiko bat edukiko du.

B) HERRITARREN PARTE-HARTZEARI DAGOKIONEZ

Herritarrek parte hartzeko programa definitzeko eta martxan jartzeko faseari dagokionez, kontuan izan behar da parte hartzeko prozesuak bi motatakoak izan daitezkeela: kuantitatiboak eta kualitatiboak. Edozein kasutan, parte hartzeko prozesu batek genero-ikuspegia barne hartuko badu, bi alderdi kontuan hartu behar dira:

Parte hartzeko programaren edukiak eta planteamenduak. Garrantzitsua da edukiak diseinatzeko orduan kontuan hartzea hiri-esparruan garatzen diren gizarte-funtzio guztiak, genero-rolen iraunkortasuna eta, beraz, emakumeek eta gizonek ingurune hurbilean ohiko zereginak egiteko izan ditzaketen zailtasunak. Esaterako, osasun-zentrorik edo adin desberdinetara egokitutako haur-parke segururik ez egotea, gehienbat emakumeen kaltetan izaten da, oraindik ere haiek baitira zainketa-zeregin gehienak bere gain hartzen dituztenak. Bestalde, parte hartzeko prozesuetan proposatzen diren gaien artean egon behar dira, genero-rol tradizionalengatik, emakumezkoei gehien eragin diezaieketenak. Batik bat, hiri-espazioan sartu behar dira, azpiegitura eta ekipamenduetako beharrak, adingabekoen eta mendekotasuna duten adin nagusikoen zainketakoak, seinaleztapenekoak, hiri-barneko eta hiriarteko oinezko mugikortasunerako sarbide desberdinak, eta hautemandako segurtasunari buruzko desberdintasunak.

Parte hartzeko programa diseinatzean, udalerrian edo planteamendu-esparruan dauden emakume elkarteak aipatuko dira edo berariaz deialdia egingo zaie.

Parte hartzeko moduak. Parte hartzeko prozesuak egiteko moduek, ordutegiek eta tokiek genero-alborapenak sortuko ditzakete. Parte hartzeko prozesuaren edo informazioa biltzeko prozesuaren zati bat online egitea erabakiz gero (teknologia digitalaren bidez), kontuan hartu behar da batez ere diskriminazio interseksional desberdinen biktimak diren emakumeen kasuan oraindik arrakala digitalak daudela; nagusiena, emakumeek egoera berean dauden gizonak baino Internetarako sarbide eta Interneti buruzko eza-gutza gutxiago izatea. Hori dela eta, kontuan hartu beharko dira zein bide erabiltzen dituzten maizen emakumeek teknologia horiek eskuratzeko, eta zein gizonek, deialdia bidezkoa izan dadin eta bi sexuek deialdiko informazioa lortzeko eta parte hartzeko aukera berdinak izan ditzaten.

Aurrez aurreko parte hartzeko prozesuetan ordutegiak kontuan hartu beharko dira, pertsonen tarte libreak desberdinak direlako sexuaren eta adinaren arabera. Horretarako, adin guztietako emakumeei bertaratzeko aukera ematen dieten aukerak eskaintzen direla ziurtatu behar da, kontuan izanda emakume bakoitzak behar desberdinak dauzkala hirian. Beste alde batetik, aurrez aurreko deialdiek ludoteka-zerbitzuak edo adingabeak zaintzeko zerbitzuak eskaini behar dituzte, zainketen zamak zaintzaileei parte hartzea eragotz ez diezaien.

Horrez gain, diseinatzen diren dinamikek (genero-roletatik eratorritako interes eta espezientzia desberdinak kontuan izateaz gain) parte hartzeko espazio bereziak sortu behar dituzte, emakumeen ekarpenak modu espezifikoan entzun ahal izateko. Halaber, aukera

ezberdinen artean proposamenak aukeratzeko herri-galdeketak egiten badira, emaitzak biltzean, ekarpenak sexuaren arabera bereiziko dira.

Horren helburua da parte hartzeko prozesu kuantitatibo eta kualitatiboetan emaitzak sexuaren arabera bereizita ustiatzea, Berdintasunerako Legearen 17. artikuluari jarraikiz. Agindu horiek diagnostiko eta azterlan guztietan kontuan izan behar dira, behar desberdinak hauteman ahal izateko, eta biak ala biak bidezko eran kontuan har daitezten.

4.3. 2. FASEA:

AURRERAPENA

HAPOaren aurrerapen-dokumentua idaztearen xedea da, hasierako datu eta helburuen arabera, antolamenduaren irizpide, helburu, alternatiba eta proposamen orokorrak definitzea.

Gaia zeharkako modu batean jorratzea alde batera utzi gabe, aurrerapen-dokumentuak **genero-ikuspegia sartzeari buruzko atal espezifiko bat izango du. Ezinbestekoa da hasieratik identifikatzea eta lehen dokumentuan zehaztea gida honetan proposatutako adierazleek zein neurritan uzten dituzten agerian aurrerapenean aipatutako hiri-diseinuaren sexu-desberdintasunak.** Era berean, amaierako neurriak zertan jaso ez bada-go ere, berdintasuna bultzatzen duten irizpideak, helburuak eta alternatibak jasota utzi behar dira. Hala, errazago suertatuko da neurri egokiak Hasierako onarpenaren fasean sartzea.

Ez dago HAPOaren aurrerapen-dokumentuaren edukiari buruzko erregulaziorik. Haatik, komeni da araudi berriaren oinarritzko ezaugarriak barne hartzea.

Fase honetan, zeregin hauek egingo dira:

- ~ Aurrerapena idaztea.
- ~ Aurrerapena jendaurrean jartzea.
- ~ Alternatibak eta iradokizunak baloratzea.

Dokumentu sorta analitiko eta diagnostiko baten ondoren, planteamenduaren aurrerapena da proposamen-edukiak biltzen dituen lehenengo dokumentua. Proposamenak garatzeak eta jendaurrean jartzeak hiru helburu osagarri ditu:

- ~ Lehenengoa, jendaurrean jartzea eta herritarren parte hartzea, ahalik eta xehetasun-maila handienarekin.
- ~ Bigarren helburua da proposamenen ezagutza zabaltzea eta udalerrriaren etorkizunari buruzko eztabaida sustatzea.

- ~ Hirugarren helburua da plan orokor berria egiteko gida gisa erabiltzea, haute-mandako arazoei eta beharrei erantzuteko, behin proposamenak eztabaidaren ondorioak oinarri hartuta egoki doitu ondoren.

Aurrerapena egin ondoren, eta herritarrek parte hartzeko prozesuan bezala, **jendaurrean jartzeko fasean, emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatua izateko behar diren mekanismoak jarriko dira**, dokumentuaren gaineko ezagutza-mailari, haren balorazioan parte hartzeari eta ekarpenak egiteari dagokienez.

Hori dela eta, jendaurrean jartzeko mekanismoek bermatu behar dute zenbatu daitekeela hartzaile kopurua, eta horien ekarpenak sexuaren eta adinaren arabera bereizten direla. Bi aldagaiak biltzearen arrazoia da, HAPOak genero-ikuspegia barne hartzea **beharrezkoa izateaz gain, 1/2023** Legegintzako Dekretuari eta indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planeko gomen-dioei jarraikiz, diskriminazio anizkoitzak eta ikuspuntu intersektional bat ere kontuan hartu behar direla emakume guztiei hirirako sarbide berdinzale bat eskaintzeko, haien adina, egoera sozioekonomikoa, jatorria, gaitasun funtzionala, orientazio sexuala eta abar edozein direla ere.

Aurrerapena jendaurreko informazioaren mende jarriko da, legeak ezartzen dituen baldintzei jarraikiz (Lurzuari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.3 art.).

Aurrerapen-dokumentuaz jaso diren iradokizunak kontuan harturik, udalak, zerbitzu teknikoen aholkularitzarekin, **Plan orokorraren proiektua idazteko oinarritzko irizpideak eta helburuak erabakiko ditu; besteak beste, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea**, hiriaz gozatzeko duten eskubidearen barruan Horretarako, ezinbestekoa da hirigintzaren eta berdintasunaren arloko organo eskudunek koordinazioan jardutea.

4.4. 3. FASEA:

HASIERAKO ONESPENA

Hasierako onespeneren fasean, jendaurreko informazioaren mende jartzen den HAPOaren proiektua zehazten da. HAPOaren proiektua egin ondoren, udalak honako ardua hauek ditu:

- ~ Hasiera batean onetsitako HAPOaren dokumentua jendaurrean jartzea.
- ~ Ukitutako organismoen txostenak eskatzea.

Fase honetan, HAPOaren proiektua idazten da eta, beraz, egokiena da **udalak generoaren araberako eraginari buruzko txostena idazteko** Berdintasunerako Legearen 20. artikuluan xedatu bezala); izan ere, neurri zehatzak proposatzen dira eta dokumentuak arau-forma hartzen du une horretan.

HAPOaren proiektuan generoaren arabera eraginari buruzko txostenean aipatutako gaiak barne hartu behar dira eta, horregatik, **behar-beharrezkoa da** hirigintzaren eta berdintasunaren arloko organo eskudunek **koordinazioan jardutea**.

HAPOaren proiektua egin ostean, HAPOaren hasierako onespeneren fasea hasten da. Hasierako onespeneren akordioa argitaratu behar da Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, lurraldean hedapen gehien duen egunkari batean gutxienez eta telematikoki (udalaren webgunean). Ondoren, jendaurreko informazioarako epea hasten da, legeak ezarritakoari jarraikiz.

Epe horretan, espedienteak (eta generoaren arabera eragina ebaluatzeko txostenak) irakurri nahi duen edozeinen eskura egon behar du, eta horiek egoki deritzeten alegazioak egin ahalko dituzte. Fase horretako balizko jardunbide egoki bat talde feministei eta emakume elkartei espedientea ematea da, batez ere generoaren arabera eraginari buruzko txostena.

4.5. 4. FASEA

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA

Behin-behineko onespeneren fasean HAPOaren proiektua zehazten da, herritarren alegazioak eta sektore-txostenak (generoaren arabera eraginari buruzko txostena ere) barne hartu ondoren.

Fase honetan:

- ~ Alegazioak eta txostenak baloratu, eta herritarrei eta erakunde interesdunei jakinarazten zaizkie.
- ~ Txostenetatik eta alegazioetatik eratorritako zehaztapenak sartzen dira.
- ~ Berdintasunerako Legearen 20. artikuluari jarraikiz egiten diren izapideak eta izapide horien emaitzak zehatz-mehatz azaldu behar dira HAPOaren memorian (Berdintasunerako Legearen 20.4 artikulua).
- ~ Udalaren osoko bilkuraren behin-behineko onespeneren eraginpean jartzen da HAPOa.

4.6. 5. FASEA

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA

Fase honetan:

- ~ Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari (EAELAB) dokumentu teknikoa eta HAPOaren espediente administratiboa bidaltzen zaizkio.
- ~ 7.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, foru-aldundiek behin betiko onartuko dute, eta, 7.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, aldiz, udalek berek.
- ~ Behin betiko onespenaren erabakian jasota geratuko dira (labur bada ere) Berdintasunerako Legearen 20. artikuluan aipatutako izapideak eta izapide horien emaitzak.
- ~ Behin betiko onespena argitaratuko da.

4.7. JARRAIPENA

Berdintasunerako Legearen 20.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, HAPOa sustatu duen udaleko administrazio-organoak jarraipena egin beharko du HAPOan jasotako neurrien gainean (20. artikuluko horren 1.-4. apartatuen aipatzen dira), emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzearen eta desberdintasunak desagerraraztearen helbururako eraginkorrak diren ikusteko; gero, horren berri emango dio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskuduna den udal-organo edo -erakundeari.

4. 8. HAPO-AREN PROIEKTUAREN ESPARRUAN GEE-A EGITEKO PROZESUARI DAGOKION ESKEMA

1. FASEA: PRESTATZE-JARDUKETAK

- ~ Idazketa-taldea kontratatzeko prozesuan berdintasun-klausulak eta beste neurri mota batzuk sartzea, GEEa egingo dutenen edo hura egiteko prozesuan aholku emango dutenen gaikuntza egokia bermatzeko.
- ~ Parte hartzeko prozesuetan genero-ikuspegia sartzea.
- ~ Aurretiazko diagnostikoetan genero-ikuspegia sartzea eta Berdintasunerako Legearen 17. artikulua betetzea, proposatutako adierazleetatik eta hiria erabiltzeko genero-arrakalak murrizteko garrantzitsutzat jo daitezkeen bestelako adierazleetatik abiatuta.
- ~ Diagnostiko orokorreko dokumentuan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko atal espezifiko bat sartzea.

2. FASEA: AURRERAPENA

- ~ Berdintasuna lortzeko balizko neurriak sartzea hasierako aurreikuspenaren aurrerapen dokumentuan.
- ~ HAPOaren aurrerapenaren aukerak berrikustea, genero-ikuspegia kontuan hartuta.
- ~ Onartutako eta baztertutako iradokizunak sartzea espedientean.

3. FASEA: HASIERAKO ONESPENA

- ~ Generoaren arabera eraginaren txostena idaztea.
- ~ HAPOa idaztea, generoaren arabera eraginaren txosteneko edukiak kontuan hartuta.
- ~ Emakumeek jendaurrean jartzeko fasean egindako ekarpenak zabaltzea eta biltzea.

4. FASEA: BEHIN-BEHINEKO ONESPENA

- ~ Berdintasunerako Legearen 20. artikuluari jarraikiz egiten diren izapideak eta izapide horien emaitzak HAPOaren memorian zehatz-mehatz azaltzea.

5. FASEA: BEHIN BETIKO ONESPENA

- ~ Behin betiko onespenaren erabakian jasota geratuko dira (labur bada ere) Berdintasunerako Legearen 20. artikuluan aipatutako izapideak eta izapide horien emaitzak.

ERANSKINAK



I. ERANSKINA:

HAPO-AREN GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN BALIOZTAPENERAKO KONTUAN HARTU BEHARREKO GAIAK ETA ADIERAZLEAK

KUDEAKETA ETA ZEHARKAKOTASUNA		
	Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
HAPOaren esparruan kontuan hartu beharrekoak	Ordezkaritza orekatua eta dinamika espezifikoak dituzten genero-ikuspegiaren arabera parte hartzeko prozesuak egotea, sexuan sexuko iritziak jasotzeko.	HAPOak barne hartzen al ditu emakume desberdinen beharrak eta bizipenak? Hizkera sexista erabiltzen da? Udalaren Berdintasun-planari erreferentzia egiten dio, horrek helburu edo informazio garrantzitsuak baldin baditu? Haren helburuen artean berariaz aipatzen al da hiri-diseinuaren bitartez emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea?
	Genero-ikuspegia txertatzea (sexuaren arabera bereizitako diagnostikoak eta datuak egotea, emakumeek eta gizonen espazio publikoan dituzten behar ezberdinak ezagutzea, berdintasuneko prestakuntza, hizkera eta iruditeria ez-sexista erabiltzea, etab.).	
Antolamendu xehatua, hiriaren diseinua eta parte-hartzearen kudeaketan kontuan hartu beharrekoak diren beste batzuk (1) antolamendu xehatua, (2) erregimintza-ordenantza, (3) urbanizazio-ordenantza eta udal-kudeaketa/-administrazioa eta/edo espazio publikoaren mantentzea.	Espazio publikoaren egoera eta mantentzea kudeatzeko sailak egotea, eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izatea. (4)	Orekatua al da ordezkaritza erantzukizun-maila guztietan? Genero-adituak al dituzte diziplinarteko taldeek? Hirigintzako eta berdintasuneko zerbitzuek koordinatuta dihardute?
	Hirigintza-plangintzara bideratutako diziplinarteko taldeak egotea, kide direla hirigintzan eta generoan gaikuntza egokia duten pertsonak. (4)	
	Espazio publikoaren kudeaketari dagokionez, hirigintzaren eta berdintasunaren arloen arteko kudeaketa koordinatua egotea. (4)	

HIRI-ESPASIOAREN DISEINUA		
TRINKOTASUNA ETA ERABILERA-NAHASKETA		
HAPOaren esparruan kontuan hartu beharrekoak	Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
	Erabilera bakarreko esparruak ekiditea.	HAPOak aurreikusten al du hiri trinkoago bat, bizitza produktiboa, ugalketakoa, pertsonala eta soziopolitikoak uztartzea errazten duena? Bereziki, errazten al ditu zainketa-zereginak? Errazten al du hiri-erabilera adeitsua, oinezkoa, edo eremu isolatuak eta ez-seguruak sortzen ditu?
	Hirietan hazkunde sakabanatuak ekiditea; auzo barreiatuak, hirigunetik urrun daudenak eta bitarte horretan urbanizatu gabeko eta nahitaez igaro beharreko eremu hutsak eratzen dituztenak.	
	Espazio abandonatuak edo erabilerarik gabeak ekiditea toki arriskutsu bihurtu ez daitezen.	
	Aisialdiko merkataritza-gune guztien pilaketa ekiditea erdigunean. Beheko solairuei merkataritza-erabilera ematea eta gertutasun-merkataritza sustatzea.	

HIRI-ESPASIOAREN DISEINUA		
EGOTeko HIRI-ESPASIOAK: ANIZTASUNA ESPASIO PUBLIKOAN		
	Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
HAPOaren esparruan kontuan hartu beharrekoak	Udalerrriak egoteko espazioak izatea.	HAPOak ezartzen du nahikoa espazio ondo banatu, sozializatzeko, komunitatea eta laguntza-sareak sortzeko? Aurreikusten al ditu espazio horiek adintsuekin eta adingabeekin adeitsuak (haietara egokituak) izateko gidalerroak? Aurreikusten eta errazten al dira adingabeen zainketak espazio publikoan?
	Ibilbideen eta espazio publikoaren sarera fisikoki lotuta dauden parkeak eta berdegune egokiak diseinatzea.	
	Hirian eremu txikiak sortzea, heterogeneoak eta erabilera askotarikoekin, erabileren nahasketa eta erabilera intentsiboak sustatuta, zainketa kolektibo edo komunitarioko ekimenen mesedetan.	
	Topagune nahikoak egotea, urteko sasoi guztietan erabiliko diren espazioekin (egurats zabaletik, eguzkitik eta haizetik babestuak) .	
Antolamendu xehatua, hiriaren diseinuan eta parte-hartzearen kudeaketan kontuan hartu beharrekoak diren beste batzuk (1) antolamendu xehatua, (2) erregintza-ordenantza, (3) urbanizazio-ordenantza eta (4) udal-kudeaketa/-administrazioa eta/edo espazio publikoaren mantentzea.	Parke eta berdegune egokiak diseinatu: sektore-egitura argiarekin, eta parke barruko bideen hierarkia eta bide nagusia zehatz eta argi adierazita. Diseinuak bide eman behar du eremuok erraz garbitu eta mantendu ahal izateko, eta behar bezala argiztatzeko. (1)	Aurreikusten al da erabilera adeitsu askotarikoz antolatutako eta osatutako espazio publiko bat?
	Haurrentzako parkeak egotea: adin desberdinetarako bereizita eta adin horietara egokituta, haurtxoak arropaz aldatzeko eta artatzeko, pribatutasunez edoskitzen emateko, adingabeen eta laguntzaileen arteko interakzioa ahalbidetzeko eta laguntzaileak egoteko leku atseginekin. Gainera, urteko sasoi guztietan erabiliko dela aurreikusi behar da (egurats zabaletik, eguzkitik eta haizetik babestuta egon behar dute). (1)	
	Topagune nahikoak egotea, urteko sasoi guztietan erabiliko diren espazioekin (egurats zabaletik, eguzkitik eta haizetik babestuak) (1).	

Antolamendu xehatua, hiriaren diseinua eta parte-hartzearen kudeaketa kontuan hartu beharrekoak diren beste batzuk

(1) antolamendu xehatua, (2) etxegintza-ordenantzak, (3) urbanizazio-ordenantzak eta (4) udal-kudeaketa/-administrazioa eta/edo espazio publikoaren mantentzea.

HIRI-ESPAZIOAREN DISEINUA		
SEINALEAK		
	Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
	Orientaziorako elementuak; besteak beste, iturriak, monumentuak, hiri-mugarriak, horiei guztiei esker erraz kokatzen baita norbera hirian. (1)	Antolamendu xehatuak eta urbanizazio-ordenantzak ezartzen al dute gidalerrorik pertsonen autonomia seinalaztapenaren bidez sustatzeko? Berezik, ezartzen al dute seinaleok informazio baliagarria eman behar dietela adintsuei, adingabeei eta mugikortasun urria dutenei? Aurreikusten al dira gidalerroetan irudien eta ikonoen erabilera sexista ekiditen duten seinale berdinzaleak?
	Ibilbide osoan seinale argi eta irakurterazak egotea, leku irisgarri eta agerikoetan kokatuak, bai kaleetan, bai atarien zenbakietan, plazetan eta etorbideetan. (3)	
	Oinezkoentzako seinaleak. (3)	
	Irisgarritasun-mapak egotea. (3)	
	Ikonografian seinale ez-sexistarik egotea. (3)	

HIRI-ESPASIOAREN DISEINUA		
HIRI-ALTZARIAK ETA EGONLEKUAK		
Antolamendu xehatua, hiriaren diseinua eta parte-hartzearen kudeaketa kontuan hartu beharrekoak diren beste batzuk (1) antolamendu xehatua, (2) etxegintza-ordenantza, (3) urbanizazio-ordenantza eta (4) udal-kudeaketa/-administrazioa eta/edo espazio publikoaren mantentzea.	Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
	Gerizpeak eta atseden-guneak egotea. Zuhaitzek ingurunearekiko egokiak izan behar dute eta ez dute inguruko ikuspena oztopatu behar. (1)	Antolamendu xehatuak eta etxegintza-ordenantzek gidalerrorik xedatzen al dute altzari-zuzkidurak kontuan izan ditzan adintsuen, adingabeen eta mendekotasun bat dutenen zainketa-beharrak? Aurreikusten al da gidalerroetan zaintzaileen beharrak kontuan hartzea?
	Zerbitzu sanitario publikoak egotea (1), baita ugalketa-zereginak gauzatzeko eremuak ere, hala nola jaten emateko, pixoihalak aldatzeko, etab. (3)	
	Eserleku edo atsedenleku nahikoa egotea, pertsona guztietara eta egoera guztietara egokituak (adin nagusiko pertsonak, bularreko haurrak edo haur-kotxetxoak dituztenak, gorpil-aulkia darabiltzenak). (3)	
	Iturri eta zaborrontzi nahikoak egotea. (3)	
	Zaborrerako eta birziklatzeko altzari irisgarri eta erabilerrazak, estetikoki atseginak eta oztopo bisuala ez direnak. (3)	

AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK		
Beharrezkoa izango da baloratzea azpiegiturak eta ekipamenduak askotarikoak diren, ongi bananduta dauden, udalerriaren eskariari erantzuten dioten eta irisgarritasun, kokapen, argiztapen, tarteko espazio eta erabilera-aniztasuneko ezaugarri egokiak dituzten.		
	Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
HAPOaren esparruan kontuan hartu beharrekoak	Hezkuntzakoak eta adingabekoentzat: besteak beste, haur-eskolak, ikastetxeak, institutuak, lanbide-heziketako zentroak, ludotekak.	Aurreikusten al da HAPOan adingabeen, adintsuen eta gazteen zainketa-beharrak estaltzeko azpiegitura nahikoa egotea? Aurreikusten al da mugimendu feministarako, berdintasun-politiketarako eta indarkeria matxistei aurre egin behar dieten emakumeen arretarako azpiegiturak egotea? Ba al dago horietan guztietan elkarrekiko erlazioa sustatzen duen tarteko espaziorik? Ongi konektatuta al daude? Irits al daiteke oinez edo garraio publikoaz haietara? Kontuan hartu al da kultura -eta kirol- ekipamenduen proposamenean eta kontaketan genero-ikuspegiaren txertaketa? Asetzen al ditu emakumeen beharrak?
	Sanitarioak eta sozialak: adibidez, osasun-zentroak, ospitaleak, oinarrizko gizarte-zentroak, langabezia-egoeran daudenentzako arreta-zentroak.	
	Emakumeentzat eta emakume elkarreentzat: besteak beste, emakumeen etxeak, ahalduntze-eskolak, informazio-, arreta- eta aholkularitza-zentroak, indarkeria matxistaren aurkako baliabideak.	
	Nagusientzat eta mendekotasuna dutenentzat: adibidez, goizeko gelak, jangelak, nagusientzako edo mendekotasuna dutenentzako eguneko edo gaueko zentroak, erretiratutakoentzako egoitza-zentroak.	
	Gazteentzat: besteak beste, gaztegunekak, gaztetxeak, gaztetxokoak, lokalak, harremanetarako espazioak, liburutegiak.	
	Kirolekoak eta kulturakoak: emakumeen eta gizonen gustu eta erabilera ezberdinak kontuan izan behar dira. Horretarako, besteak beste, erabilera anitzeko espazioak, igerilekuak, gimnasio publiko eta pribatuak, eta jardueretarako lokalak sustatzea komeni da.	

MUGIKORTASUNA		
OINEZKO MUGIKORTASUNAREN DISEINUA		
	Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
HAPOaren esparruan kontuan hartu beharrekoak	Ibilgailuetarako bide nagusietan oinezkoentzako ordezkotako ibilbideak egotea, oinezkoek irisgarriagoa den ibilbide jarraitu bat eduki ahal izan dezaten. Oinezkoentzako ibilbide horiek sare bat sortu behar dute.	HAPOak ibilgailu pribatu bidezko mugikortasuna bainoago sustatzen al du oinezko mugikortasuna? Sortzen al ditu oinezkoentzako ibilbide jarraituak, zainketarako ekipamenduak konektatzen dituzten ibilbideei lehentasuna emanez? Sortzen al dira hiritik oinez modu autonomoan ibiltzea sustatzen duten esparru adeitsuak?
	Atsedean hartzeko eta jolasteko guneak, eta motorrik gabeko garraio alternatiboetarako bideak egotea, baita eragin bisuala eta akustikoa indargetzeko ere (esaterako, zuhaitzak, loreontziak edo berdeguneak).	
	Bi haur-kotxe edo gorpil-aulki igaro ahal izateko adinako zabalera duten espaloiak sortzea.	
Antolamendu xehatua, hiria diseinuan eta parte-hartzearen kudeaketan kontuan hartu beharrekoak diren beste batzuk (1) antolamendu xehatua, (2) etxegintza-ordenantza, (3) urbanizazio-ordenantza eta (4) udal-kudeaketa/-administrazioa eta/edo espazio publikoaren mantentzea.	Ibilbide jarraituetan, oinezkoen pasabideak espaloiaren altuera berean egon behar dira. (3)	Aurreikusten al da hirigintzaren diseinuan irisgarritasun unibertsala?
	Hiritik oinez ibiltzeko mapa bat egotea, eguneroko mugikortasun ezinbestekoaren logika zirkularra kontuan hartuta. (4)	

MUGIKORTASUNA		
BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTSAUNA		
	Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
HAP0aren esparruan kontuan hartu beharrekoak	Udalerriko espazio publiko nagusiak auzoekin konektatzen dituzten bizikleta bidezko mugikortasunerako espazioak egotea.	Auzoetatik ekipamendu nagusietara arteko bizikleta-bideak erabilgarriak izateko nahikoa jarraituak al dira? Jarraituak eta seguruak al dira?
	Bizikleta bidezko mugikortasunerako espazioen jarraitutasuna.	
Antolamendu xehatuan, hiriren diseinuan eta parte-hartzearen kudeaketan kontuan hartu beharrekoak diren beste batzuk (1) antolamendu xehatua, (2) exegintza-ordenantzak, (3) urbanizazio-ordenantzak eta (4) udal-kudeaketa/-administrazioa eta/edo espazio publikoaren mantentzea.	Bizikleta bidezko mugikortasunerako espazio babestuek egotea, oztopo-zutoinekin edo banatzaileekin, edo ibilgailu-trafikutik behar bezala zedarrituta eta bereizita. (1)	Bizikletak seguru aparkatzeko tokirik al dago?
	Bizikleta-aparkalekuak egotea. (1)	

MUGIKORTASUNA		
GARRAIO PUBLIKO BIDEZKO MUGIKORTASUNA		
	Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
Antolamendu xehatua, hiriaren diseinuan eta parte-hartzearen kudeaketan kontuan hartu beharrekoak diren beste batzuk (1) antolamendu xehatua, (2) ebeigintza-ordenantzak, (3) urbanizazio-ordenantzak eta (4) udal-kudeaketa/-administrazioa eta/edo espazio publikoaren mantentzea.	Garraio publikorako sarbideek, haien ibilbideek eta aldaketek ikuspen ona izan behar dute (1); erabiltzaileak zapalduko duen espazioaren ikuspegi global (3) eta argi bat izan behar du, eta aldi berean gainerakoek erabiltzailea ikusi behar dute. (3)	Ezartzen al da irizpiderik garraioak zainketa-lanen berezko mugikortasun poligonala sustatzeko? Errazten al ditu mendekotasuna duten pertsonen autonomia eta mugikortasuna?
	Larrialdi-deiak egiteko puntuak egotea. (3)	
	Garraio-aldaketetan segurtasuna bermatzea: argiztapena, toki egokia aukeratzea, zaindutako eremuak egotea... (3)	
	Geltokiek eta sarrerek eguraldi txarretik babestu behar dute, eta eserlekuak edo itxaroteko tokiak eduki behar dituzte. (3)	
	Garraio publikoko geltokien argiztapen ona bermatu (3). Itxaroten ari den pertsonak kalea argi ikusi behar du, eta alderantziz (1).	
	Garraio publikoa interkonektatuta egotea, hiriko auzoak lotzekoa, eskema polizentriko bati jarraituz. (4)	
	Biztanle guztientzako geltokiak egotea eta horietara iristeko oinez 10 minututik gora egin behar ez izatea. (4)	
	Gaueko mugikortasunaren garraio publikoaren mapa bat egitea. (4)	

HAUTEMANDAKO SEGURTASUNA		
IKUSIA ETA IKUSIA IZATEA		
	Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
HAPOaren esparruan kontuan hartu beharrekoak	Ikuspen urriko bidegurutzerik ez sortzea eta ikuseremuaren hobekuntza sustatzea.	Aurreikusten al da HAPOan segurtasunaren pertzepzioa hiri-espazioa diseinatzeko irizpide gisa?
	Hirian zehar banatzea jarduera-guneak.	
	HAPOaren dokumentazioan ez-segurutzat jotzen diren puntuak identifikatzea.	
Antolamendu xehatua, hiriaren diseinuan eta parte-hartzearen kudeaketan kontuan hartu beharrekoak diren beste batzuk (1) antolamendu xehatua, (2) elxegintza-ordenantza, (3) urbanizazio-ordenantza eta (4) udal-kudeaketa/-administrazioa eta/edo espazio publikoaren mantentzea.	Aurreikus daitezkeen bideak ekiditea (zubiak, eskailerak, tunelak edo igogailuak) (1). Saihestu ezin badira, zainduta egon behar dute, eta ikuseremu zabala eduki (ispiluak erabiltzea, eta material gardenak, argiztapena). (3)	Antolamendu xehatuak aurreikusten al du aurre egitea ikusteko eta ikusia izateko aukera gutxi dagoen puntuei? Aurreikusten al da jarduera-gune sakabanatu batzuk egotea, jarduera-ordutegi desberdinetakoak, segurtasun-sentsazioa areagotzeko? Kontuan hartzen al da argia kudeatzeko irizpideetan, energia-efizientziaz gain, herritarren segurtasun-pertzepzioko beharrak?
	Argiztapen nahikoa ez duten espazio publikoak saihestea. Igarobideetan eta igarotzeko eremuetan argiztapen nahikoa egotea gauez, zuhaitzekin eta bestelako landarediarekin bateragarriak diren argiak erabiliz. (3)	
	Aparkaleku handiek argiztapen eta zaintza nahikoa izan behar dute. (3)	
	Barnealdea ikusteko aukera ematen duten (2) eta kale nagusira ematen duten atari beiradunak (1).	
	Ikuspen urria eragin dezaketen eremu arkupe dunak ez egotea. (1)	
	Atariaren eta espazio publikoaren artean ibilbidea argi ikustea eragozten duen tarteko espaziorik ez egotea. (1)	

ETXEBIZITZA		
ERAIKINEKO ESPAZIO KOMUNAK		
	Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
HAPOaren esparruan kontuan hartu beharrekoak	Atari zabalak, beiradunak eta ikuspen onarekin.	Aurreikusten al du HAPOak, bizigarritasuneko eta erabilera komune baldintzetan, etxebizitzan espazio kolektiboak eta tarteko espazioak sortzea, erabilera-aniztasuna bultzatzeko? Aurreikusten al dira zainketa-beharrak erabilera horietan?
	Eraikineko bizilagunen arteko harremanak susta ditzaketen espazio komunak sortzea.	
	Eskailera zabal ongi argiztatuak, ikuspenik gabeko eremu arriskutsurik gabeak.	
	Biltegiratzeko-espazioak eremu komunetan (adibidez, bizikletak edo haur-kotxeak uzteko trastelekuak), iristerrazak.	
Antolamendu xehatua, hiriaren diseinua eta parte-hartzearen kudeaketa kontuan hartu beharrekoak diren beste batzuk (1) antolamendu xehatua, (2) etxegintza-ordenantza, (3) urbanizazio-ordenantza eta (4) udal-kudeaketa/-administrazioa eta/edo espazio publikoaren mantentzea.	Kanpoaldearen kontrol bisuala duten espazio komunak (teilatu lauak, solairuan solairuko topaguneak, atariak...). (2)	Garrantzia ematen al dio eraikinaren egituraren bidez bizilagun izateko era baten alde egiteari, bizilagunen artean harreman-komunitate bat sortzeari?
	Arropa esekitzeko espazio komunak, etxebizitzetan eseki ezin daitekeenean. Arreta berezia jarriko zaie toki horien irisgarritasunari, segurtasun-baldintzei eta kontrol bisualari. (2)	

ETXEBIZITZA		
ETXEBIZITZAREN DISEINUA		
	Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
HAPOaren esparruan kontuan hartu beharrekoak	Familia mota desberdinak daudela kontuan izatea, etxebizitza malguak eta moldakorrak ahalbidetuz.	Etxebizitzen bizigarritasun-irizpideak ezarritako gutxienekoak izatea aurreikusten al du? Edo etxebizitzen malgutasuna eta moldakortasuna hobetzeko eta familia-unitateko (hainbat motatakoa izan daitekeela kontuan hartuta) kide guztien ugalketa-lan erantzukideetara egokitzeko irizpideak proposatzen ditu?
	Etxebizitzaren erabilera ekoizpen-erabilerekin bateragarri egiteko aukera aurreikustea.	
Antolamendu xehatua, hiriaren diseinua eta parte-hartzearen kudeaketan kontuan hartu beharrekoak diren beste batzuk (1) antolamendu xehatua, (2) etxegintza-ordenantzak, (3) urbanizazio-ordenantzak eta (4) udal-kudeaketa/-administrazioa eta/edo espazio publikoaren mantentzea.	Etxebizitzak ugalketa-lana (zainketa, arroparen zikloa, janariaren zikloa...) kontuan izanda diseinatzea eta etxebizitzak ekoizpen-erabilerak izateko aukera aztertzea. (2)	
	Terrazen garrantzia aztertzea, kanpora irteteko eta auzokoekin balizko harreman kolektiboak ezartzeko esparruak direlako. (2)	

Antolamendu xehatua, hiriaren diseinua eta parte-hartzearen kudeaketan kontuan hartu beharrekoak diren beste batzuk
 (1) antolamendu xehatua, (2) erregintza-ordenantzak, (3) urbanizazio-ordenantzak eta (4) udal-kudeaketa/-administrazioa eta/edo espazio publikoaren mantentzea.

VIVIENDA	
DISEÑO DE ESTANCIAS Y DISTRIBUCIÓN DE LA VIVIENDA	
Hasierako egoera aztertzea	Eraginaren balorazioa
Biltegiratze-esparru nahikoa diseinatzea, gela bestela antolatu eta janzteia baldintzatu gabe. (2)	Gelak diseinatzeko proposatzen diren irizpideek sustatzen al dute zainketa-lanen ardura partekatua eta familia-egituren askotarikotasuna eta aldagarritasuna?
Zainketa-zereginak agerian dauden sukalde zabalak diseinatzea. (2)	
Antzeko tamaina duten gelak, aurrez erabakitako erabilerarik gabekoak. (2)	
Sarbide kolektiboko komunak (ez suite eran), mendekotasuna duten pertsonen (adingabeak, adintsuak edo desgaitasun funtzionala dutenak) zainketa-zereginak errazteko nahikoa zabalak direnak. (2)	

II. ERANSKINA:

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIO-TXOSTENAREN EREDUA

Jarraian, generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioaren (GEE) txosten-eredu bat azalduko da. Honako atal hauek izango ditu:

A. PROIEKTUAREN DESKTRIBAPEN OROKORRA

Aurrekariak eta xedea.

Aurrekari administratiboak eta dokumentuaren xedea sartuko da. Hirigintza-plangintzan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko neurriak sartzeko hartu diren neurrien aurrekari administratiboak azalduko dira, eta GEEaren xedea definituko da.

B. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA

Udal diagnostikoa.

Udal-egoeraren diagnostikoa, HAPOa idazten den unekoa, genero-ikuspegitik. Besteak beste, alderdi hauek barne hartuko dira:

- ~ Biztanleriari, pertsonen jarduera profesionalari, errenta-mailei, jarduera ekonomikoei eta establezimendu komertzialei, hiri-segurtasunaren pertzepzioari eta denbora-kudeaketari (kontziliazio arduratsua, erantzukidetasuna, denbora-erabilera berriak, etab.) dagozkien datuak eta informazioa, sexuaren arabera bereizita.
- ~ Aurrerapen-fasean parte hartzeko prozesuaren ondorioak.
- ~ ...

Generoaren araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioaren xedea eta ebaluazioa egiteko esparru orokorra.

Ebaluazioa gauzatzeko esparru orokorra. Ebaluazioaren xede den HAPOaren aplikazio-testuingurua eta HAPOaren eduki orokorrak azalduko dira.

Generoaren araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa. HAPOaren azterketa.

Generoaren araberako eraginari buruzko ebaluazioa. Gida honetan eta I. eranskinean aipatzen diren analisi-dimentsioen ikuspuntutik HAPOa aztertuko da.



C. NEURRIAK

Emakumeen eta gizonen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak.

Desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proposatutako neurriak identifikatzea. Jarraian, gutxi gorabeherako neurri-zerrenda bat jaso da. Bertan, HAPOaren plangintza-eskalako neurriez gain, antolamendu xehatuari, etxegintza- eta hirigintza-ordenantzei eta udal-kudeaketa eta -antolamenduko arloei

nahiz espazio publikoaren mantentze-lanei dagozkien alderdiak ere sartu dira, HAPOa berdinzaleago egiten dute eta.

BERDINTASUN-POLITIKEN KUDEAKETA ETA ZEHARKAKOTASUNA	
Neurri mota	
ZEHARKAKOTASUNA HAPO-AN	~ Hiri-diseinuko proiektuetan hirigintzan eta berdintasunean gaikuntza egokia duten pertsonak sartzea. ~ Udaleko berdintasun-unitateen eta hirigintza-zerbitzuen arteko koordinaziorako eta jarraipenerako talde mistoak sortzea. ~ Sexuaren arabera bereizitako datuak barne hartzen dituzten diagnostiko-prozesuak egitea eta neurriak hartzea, emakume anitzek espazio publikoan dituzten premiak aztertuz, hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuz, Berdintasunerako Legea kontuan izanda, baita berdintasun-planak aintzat hartuta ere, helburuak eta irizpideak funtsatzeko eta zehazteko garaian. ~ Genero-ikuspegia barne hartzen duten parte hartzeko prozesuak egitea. Mistoak badira, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatuarekin eta sexuen iritziak biltzeko berariazko dinamikekin; emakumeen premiak jasotzeko berariazko dinamikak ezarritz hobe.

HIRI-ESPASIOAREN DISEINUA	
Neurri mota	
TRINKOTASUNA ETA ERABILERA-NAHASKETA	~ Hiri-erabileren nahasketa sustatzea: - Eraikinen beheko solairuetan lokalak egotea modu arrazoizkoan bultzatuz. - Dentsitate txikikoak eta etxabe lorategidunak kontrolatuz. - Industria-erabilera eta hirugarren sektorekoa zainketa-ekipamenduekin batera ez egotea. - Auzo-eskalako diseinu eguneroko joan-etorriak oinez egiteko pentsatua. ~ Behin-behineko hazkunde sakabanatuak ekiditeko etapan plana berrikustea. ~ Erabileren arteko mugak egoki diseinatzea, toki ez-segurua sortzea saihesteko.
EGOTeko HIRI-ESPASIOAK	~ Espazio publikoa berrurbanizatu, eta egoteko hiri-espazioak sortzea. ~ Adingabeen eskariaren aurretiazko analisi bat egitea haur-jolasen mota aukeratzeko eta baldintza klimatologikoetara nahiz haur-biztanleriaren ezaugarri soziodemografikoetara egokitutako proposamenak eginez. ~ Espazio publikoa urbanizatzeko baldintzak finkatzea: eguzkialdia eta haize nagusiak aztertzea, erabiltzaileen premiak kontuan hartuta.
SEINALEAK	Diagnostic-aldagaiak barne hartzen dituen oinezkoen mugikortasunerako seinaleen berariazko ordenantza bat proposatzea.
HIRI-ALTZARIAK ETA EGONLEKUAK	~ Espazio publikoan ugalketa-zereginak gauzatzeko eremuak jartzea. ~ Hiri-altzariak aukeratzeko, parte hartzeko prozesuak egitea, altzari horien balizko erabiltzaile talde zaurgarrien parte-hartze espezifikoarekin (adingabeak eta adintsuak); adibidez, adintsuen beharretara egokitutako bankuak. ~ Hiri-altzarien gaineko ordenantzak genero-ikuspegia txertatuta izatea.

AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK	
Neurri mota	
AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK	~ HAPOaren erabileren barruko zainketarako azpiegituren definitu. ~ Ekipamenduak eta azpiegiturek aztertzea eta eguneroko bizitzarako lagungarriak diren irizpidearen arabeko proposamenak. ~ Azpiegituren eta ekipamenduetarako oinezkoentzako eta garraio publikoarentzako sarbideak berrikustea.

OINEZKOENTZAKO MUGIKORTASUNA ETA GARRAIO PUBLIKOA	
Neurri mota	
OINEZKO MUGIKORTASUNAREN DISEINUA	~ Kaleen eta oinezkoentzako ibilbideetan diseinu-irizpide orokorrak kontuan izatea: pasabide eraginkorrak, terrazen ordenantzak, banku nahikoa oinezkoentzako ibilbideetan, oinezkoen pasabide seguruaren diseinua eta beste. ~ Eguneroko bizitza gauzatu ahal izateko oinezkoentzako ibilbide seguru eta eraginkorrak diseinatzea. ~ Oinezkoentzaren onuz kontzientziatzeko herritarrek parte hartzeko prozesuak egitea eta ibilgailuak espazio publikoan duen presentzia hausnartzea.
BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUNA	~ Eguneroko lanak egiteko txirrindulariak mugikortasuneko sarean diseinatzea. ~ Etxegintza-ordenantzek barne hartzea etxebizitza-erakinek bizikleta-aparkalekuak barne hartzea.
GARRAIO PUBLIKO BIDEZKO MUGIKORTASUNA	~ Ibilgailu motordunak urritzeko neurriak sartzea eta bizikleta bidezko mugikortasuna edo oinezkoa bultzatuz. ~ Garraio-konexioa faboratzen duten azpiegiturek sartzea hiri-diseinuan (esaterako, geltoki intermodalak). ~ Garraio publikoaren geltokien kokapena berrikustea. ~ Gomendioak sartzea beste dokumentu batzuetan jasota dagoen mugikortasuneko diseinuan.

HAUTEMANDAKO SEGURTASUNA	
Neurri mota	
HAUTEMANDAKO SEGURTASUNA	~ Espazio publikoetan argiztapen egokia eta nahikoa egotea. Igarobideetan eta igarotzeko eremuetan argiztapen nahikoa egotea gauez, zuhaitzekin eta bestelako landarediarekin bateragarriak diren argiak erabiliz. ~ Ordezko ibilbideak sortzea, aurreikus daitezkeen bideak ekidinez, hala nola, zubiak, eskaile-rak, tunelak edo igogailuak. Saihestu ezin badira, zainduta egon behar dute, eta ikuseremu zabala eduki (ispiluak erabiltzea, eta material gardenak, argiztapena). ~ Bidegurutzeetan kontrol bisualeko zailtasuna kontrolatzea. ~ Jarduera-guneak hirian zehar sakabanatzea, eremu mortuak ekidinez. ~ Saltokiak egunez eta gauez irekita egon ahal izateko arauak xedatzea. ~ Aparkaleku handietan argiztapen eta zainketa nahikoa egotea. ~ Barrualdeko kutxazainak diseinatzea, erabiltzeko orduan segurtasun-sentsazio handiagoa ematen baitute. ~ Barnealdea ikusteko aukera ematen duten eta kale nagusira ematen duten atari beiradunak diseinatzea. ~ Atari zutabedunak ekiditea, ikuspen urria eragitegatik, baita, oro har, espazio publikoaren eta pribatuaren arteko ikuspena zailtzen duten hiri-elementuak ere. ~ HAPOaren dokumentuan ez-segurutzat jotzen diren puntuak sartzea. ~ Segurtasunik ezaren pertzepzioa eragiten duten faktoreek eta hiri-elementuen kudeaketa-eta komunikazio-plan bat ezartzea, herritarrek zerbitzu publikoen kudeaketaren efikaziari buruzko informazioa eskuratu ahal izan dezan.

VIVIENDA	
Tipo de medida	
TARTEKO ESPAZIOAK ETA ESPAZIO KOMUNAK:	Etxebizitza-eraikinetarako etxegintza-ordenantzetan sartzea diagnostikoan kontuan hartutako irizpideak. Tarteko espazioak eta espazio komunak: ~ Auzokideen arteko harremanetarako «espazio sozialak» sortzea. ~ Eskailera zabal ongi argiztatuak, ikuspenik gabeko eremu arriskutsurik gabeak. ~ Biltegitratzeko-espazioak eremu komunetan (adibidez, bizikletak edo haur-kotxeak uzteko trastelekuak), iristerrazak. ~ Atari zabalak, beiradunak eta ikuspen onekoak, eta kale nagusietara begira. Etxebizitzaren diseinua: ~ Familia-aniztasuna kontuan izatea, etxebizitza malguak eraikiz. Hasierako banaketa aldatzea ahalbidetzen duen etxebizitza-diseinu moldakorra, etxebizitzako kideen behar aldakorrei egokitzeko (zoru jarraitua, egitura higiezin gutxienekoak, paramentu zut malguak eta, ahal bada, higikorrak izaten laguntzea). ~ Etxebizitzan ekoizpen-erabilerak egoteko aukera aztertzea. ~ Terrazen garrantzia aztertzea, kanpora irteteko eta auzokoekin balizko harreman kolektiboak ezartzeko esparruak direlako. Gelen diseinua eta etxebizitzaren banaketa: ~ Biltegitratzeko toki nahikoa diseinatzea (ahal dela, korridorera begira), hainbat erabilera izan ditzaten eta gelak moldakorrak izateko. ~ Zainketa-zereginak agerian dauden sukalde zabalak diseinatzea. Sukaldeek, ugalketa-lanak gauzatzeko esparru direnez, zainketa-lanak agerian jartzea faboratu behar dute; horretarako, atsedeen-eremuekin (adibidez, egongelarekin) ongi konektatuta egon behar dute, baina panel mugikorren bidez bananduta egon daitezke, lan- eta aisialdi-espazioak bereizi ahal izateko. Ugalketa-lana partekatuko badute etxeko gizonezko kideek, nahikoa toki izan behar dute. ~ Antzeko tamaina duten gelak, aurrez erabakitako erabilerarik gabekoak. ~ Sarbide kolektiboko komunak (ez suite eran), mendekotasuna duten pertsonen (adingabeak, adintsuak edo desgaitasun funtzionala dutenak) zainketa-zereginak errazteko nahikoa zabalak direnak.

III. ERANSKINA:

GEE-A HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN PROZEDURAN

HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN PROZEDURA.

2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa.

46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen.

1. FASEA: PRESTATZE-JARDUKETAK

~ Udalak, aurretiazko ikerketak egin, hirigintza-informazioa bildu eta hasierako diagnostikoak eta helburuak proposatu ahalko ditu (2/2006 Legearen 86. art.).

Diagnostiko orokorrak barne hartu beharko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko atal bat.

Dokumentua idaztea erabaki ondoren, informazioa eskatuko zaie organo eskudunei, eta bi hilabeteko epean emango da (2/2006 Legearen 90.1 art.). Hasteko erabakia herritarrek parte hartzeko programari erantsiko zaio (2/2006 Legearen 108. art.).

Herritarrek parte hartzeko programan, arreta berezia jarriko da emakumeen elkartei udalerrian edo hiri-antolamenduaren esparruan.

2. FASEA: AURRERAPENA

~ Aurrerapena egingo da.

Aurrerapenak barne hartuko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko atal espezifiko bat.

~ Aurrerapenak gutxienez bi hilabetez egon behar du jendaurrean erakusgai. Iragarkia Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, gehien zabaltzen den egunkari batean eta

baliabide elektronikoetan argitaratuko da. Udal mugakideei eta, hala badagokio, Arabako administrazio-batzarrei jakinaraztea, ezagutu dezaten (2/2006 Legearen 90.3 art.).

3. FASEA: HASIERAKO ONESPENA

- ~ Jendaurrean jartzearen emaitzak eta irismen-dokumentua kontuan hartuta, Udalak plan orokorraren hasierako onespeneren dokumentua idazteko irizpideak eta helburuak finkatuko ditu (2/2006 Legearen 90.4 art.).

Dokumentua idazteko irizpideetako bat izan beharko da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea hiri-erabileran eta -gozamenean.

- ~ Dokumentu teknikoa idaztea, hasierako onespena jaso dezan.

Berdintasunerako Legearen 20. artikuluan ezartzen denari jarraikiz, Udalak generoaren araberako eraginari buruzko txostena idatziko du.

Arestian aipatutako txostenaren edukia kontuan hartuta, behin betiko dokumentua idatziko da, hasierako onspena jaso dezan.

- ~ Udaletxeak hasierako onspena emango dio plan orokorrari.
- ~ Dokumentua jendaurrean erakusgai jarriko da gutxienez 45 egun baliodunez, erabakia aldizkarian eta prentsan argitaratu den egunetik zenbatzen hasita. Onspena sektore-administrazioei eta administrazio-batzarrei jakinaraziko zaie.

4. FASEA: BEHIN-BEHINEKO ONESPENA

- ~ Plan orokorraren behin-behineko onspena, egin behar diren aldaketekin. Araban, erabakia administrazio-batzarrei bidaliko zaie (2/2006 Legearen 90.6 art.).

Berdintasunerako Legearen 20. artikuluari jarraikiz egiten diren izapideak eta izapide horien emaitzak (Berdintasunerako Legearen 20.4 artikulua) zehatz-mehatz azaldu behar dira HAPOaren memorian (behin-behineko onspeneren eraginpean dago).

- ~ Plan orokorra udalak onartuko du behin-behingo eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio (...) (2/2006 Legearen 91.2 art.). Batzordeak plana jaso eta hiru hilabeteko epean txostena eman ez badu, aurrera egin ahal izango da izapideekin (...) (2/2006 Legearen 91.3 art.).

5. FASEA: BEHIN BETIKO ONESPENA

j) Udalak edo, hala badagokio, Foru Aldundiak behin betiko onestea, eta LHAOean hirigintza-arauekin batera argitaratzea (2/2006 Legearen 89.5 eta 91.4 art.), LHAOean eta egoitza elektronikoan argitaratzea (zer-nola sartu diren ingurumen-alderdiak). (Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26. artikulua) (Berdintasunerako Legearen 7. artikulua).

Behin betiko onespenaren erabakian jasota geratuko dira (labur bada ere) martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan aipatutako izapideak eta izapide horien emaitzak.

IV. ERANSKINA:

GENERO-IKUSPEGIA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROETAN

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (LAG) genero-ikuspegia txertatzeari buruz xedatzen direnak biltzen dira jarraian, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onetsitakoak:

- ~ Lehendabizi, LAGen memoriaren 10. kapituluko «10.2 Genero-ikuspegia» atal espezifikokoaren eduki osoa biltzen da, zeharkako gaiei buruzkoa.
- ~ Bigarrenik, LAGen memoriaren hainbat ataletako pasarteak atera dira, xedapen horien erakusgarri.
- ~ Azkenik, gaiarekin estu lotutako gidalerroen edukia biltzen da (LAGen Aplikazio Arauena).

Dokumentua hemen dago eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dots_nuevo/eu_def/adjuntos/DOT-LAG-2020/DOT_Doc-completo.pdf

LAGen memoriaren 10. kapituluko «10.2 Genero-ikuspegia» atal espezifikokoaren eduki osoa, zeharkako gaiei buruzkoa.

10. Zeharkako gaiak / 10.2 Genero-ikuspegia

Pertsonak premia eta itxaropen desberdinak dituzte lurraldearekiko eta hiri-gunearekiko nahiz landagunearekiko, bakoitzak eguneroko bizitzan hartzen duen genero-rolaren arabera. Lurraldearen Antolamenduan genero-ikuspegia sartzeak aukera ematen du gizon eta emakumeek baliabide guztiak baldintza-berdintasunean eskuratzen dituztela bermatzeko.

I. GAIA ZERTAN DEN

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak honako hau dio 19.1 artikuluan: «Arauk garatu eta aplikatzerakoan, eta planak, programak eta politika publikoak formulatzeko beste tresna batzuk, eta kontratuak, dirulaguntza-programak eta administrazio-egintzak garatu eta aplikatzerakoan». Amsterdameko Itunak Europar Batasuneko estatu kideetan emakume eta gizonen arteko berdintasun-politikak aplikatzeko gidalerrotzat ezarritako genero-ikuspegiko printzipioari erantzuten dio 19.1 artikulua horrek.

*Pertsonak premia eta itxaropen desberdinak dituzte lurraldearekiko eta hirigunearekiko, bakoitzak eguneroko bizitzan hartzen duen genero-rolaren arabera. Ordaindu gabeko lanaren eta lanaren sexu-bereizketaren kontzeptuak funtsezkoak dira horretarako. Ordaindu gabeko lana edo **zaintza** esaten dugunean, inoren laguntza behar duten adingabe eta adinekoak zaintzeko eta etxea mantentzeko pertsona helduek alor pribatuan eta konpentsaziorik gabe egiten dituzten lanez ari gara. Lanaren sexu-bereizketa diogunean, berriz, gizarteak pertsonen sexuaren arabera esleitzen dizkien lan desberdinez ari gara. Estatistikoki, emakumeek beren gain hartzen dute ordaindu gabeko zaintza-lanaren zati handiena.*

Denboraren erabilerari buruzko inkestetako datuek erakusten digutenez, gizonak eta emakumeak denboraren erabilera desberdina egiten dute, beren eguneroko bizitzetan hartzen duten genero-rol desberdinen ondorioz. Emakumeak zaintza-lanaren zati handienaz arduratzen dira, hau da, etxeko lanak egitearekin, eta seme-alaba zein senide gaixo eta adinekoak zaintzearekin zerikusia duten lan gehienak egiten dituzte; gizonak, aldiz, ezer gutxi laguntzen dute oraindik alor horretan.

Eguneroko bizitza mantentzeko egiten den lana, ugalketa-lanarekin zerikusia duten zereginak egiten diren lekuan egiten da: hezkuntza, osasuna, kirola, aisia, erosketak, administrazio-tramite eta -gestioak eta abar. Toki horietara joateko, zaintza-erantzukizunak dituzten pertsonak eskuragarri dauzkaten garrario-sistemak erabili behar dituzte. Hori egiteko aukera bermatu behar da, egunean, astean edo hilean zeregin bakoitzak eskatzen duen ordutegiaren eta denboraren arabera. Horrez gain enplegu bat daukaten pertsonentzat, horrek guztiak bateragarri behar du ordainpeko enplegura fisikoki iristeko aukerarekin.

*Eguneroko bizitzaren eta **zeregin-katearen** kontzeptu operatiboak ere kontuan hartzekoak dira. Eguneroko bizitzaren kontzeptuak agerian jartzen ditu hiriguneko eta landaguneko pertsonen eguneroko premiak, enplegua eta besteak zaintzeko lanak uztartzen dituztenen zeregin ugariak jasoz. Hirigunea, hiriar-teko gunea edo landagunea erabiltzean eguneko, asteko, hileko edo bizitza osoan zeharreko denbora-zikloetan gertatzen diren erregularatasunak edo zeregin-kateak ulertzeko aukera ematen du eguneroko bizitzaren kontzeptuak. Hori garrantzitsua da lan-karga bikoitza dutenentzat, eguneroko bizitzako jarduerak eguneroko aldizkakotasunak ez ezik, asteko eta hileko aldizkakotasunak ere badituztelako; gainera, zeregin-kateak desberdinak izaten dira sarri, astegunen arabera.*

Enplegua eta zaintza bateragarri egiten dituzten pertsonen eguneroko bizitzaren zeregin-kate horien haritik datozen premia espezifikoak hirigintzaren alor sektorial guztietan nabari dira, esaterako, mugikortasunean, azpiegitura eta ekipamenduetan, lantoki eta saltokietan, etxebizitzan eta gune publikoetan, eta lurralde-plangintzak eta hirigintzak horiek guztiak kontuan hartu behar dituzte. NBEk eta Europar Batasunak adierazi dute hirigintza eta lurraldearen

antolamendua politika publikoaren funtsezko esparruak direla emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren bidean aurrera egiteko.

Bestalde, azterlan askok erakutsi dute emakumeek mugikortasuna murrizten dutela eta hirigunea gutxiago erabiltzen dutela segurtasunik gabe sentitzen direlako sexu-erasoak eta emakumeen aurkako bestelako indarkeriak jasateko arriskuaren aurrean. Eta automugaketa horrek oztopatzen du pertsonaren erabateko garapena eta hiri-ondasun eta -zerbitzuak erabiltzeko eskubidea.

Emakumeen pobrezia erlatiboa ere kontuan hartzekoa da, gizon eta emakumeek hiri-ondasun eta -zerbitzuetara iristeko aukeretan eragiten duen neurrian. Are gehiago faktore hori diskriminazioa eragin dezaketen beste ezaugarri batzuekin nahasten denean, esaterako, egoera zibilari (ama guraso bakarra den etxeak eta etxe pertsonabakarrak, batez ere), arrazari, adinari, ahalmen funtzionalari edo genero-indarkeriaren biktimei lotutako familia-kargekin.

Bestetik, emakumeek ordezkaritza eskasa dute hiriaren eraikuntzarekin lotutako lanbideetan eta lurralde-gobernuko egituretan, eta horrek zer eraikitzen den eta nola eraikitzen den baldintzatzen du. Nolanahi ere, emakume gehiagoren presentzia soilak ez du esan nahi, inondik inora, genero-gaiei eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren agendari arreta handiagoa eskaintzen zaienik. Agenda eta kultura profesionaletan benetako aldaketak-egoerak gerta daitezten behar-beharrezkoak dira, batetik, masa kritiko bat, emakume kopuru nahikoa alegia, eta, bestetik, aditu-mailako jakintza genero-gaietan.

Faktore horiek guztiek espazio-inplikazioak dituzte, lurralde-plangintzak eta -antolamenduak kontuan hartu behar dituztenak. Genero-ikuspegia lurralde-eta hiri-plangintzan sartzeak honako hauek dakartza berekin: batetik, eremu publikoak, ekipamenduak eta etxebizitzak egiterakoan, familia zaintzeko eguneroko zereginak eta ordainpeko lana ahalegin eta zailtasun gutxiagorekin egin daitezkeela aintzat hartzea; eta bestetik, urrakortasun-egoeran dauden emakumeen espazio- eta hiri-premiak, ekonomikoki iristeko mugak barne, kontuan hartzea. Horrela, hiri eta lurralde bidezkoago eta seguruagoak sortzeko bidean egongo gara, herritar guztien bizi-kalitatearen mesedetan.

Zaintza-premiei ondoen erantzuten dien hiri- habitataren eredua honako hau da: hiri trinkoa, nahiko dentsoa, distantzia labur eta hurbiletakoa, garraio- sistema publiko on batekin, kalitatezko eremu publiko eta garraio seguruekin, erabilerak nahasten dituen, eta, auzoetan adingabeak eta mendekotasuna duten adinekoak zaintzeko ekipamendu-sistema batez hornitua dagoena, Estatuko ohiko plangintza- sisteman jada jasota dauden asistentzia-, eskola-, osasun-, hezkuntza-kirol- eta kultura-ekipamendu tradizionalei eranstea modukoa. Horrek guztiak ordainpeko enplegua eta zaintza-lanak bateragarri egitea ahalbidetzen du, erantzukizun bikoitz hori hartzen dutenei enplegu-tokietara eta bizitzari eusteko behar diren ekipamenduetara iristeko aukera

emango dielako, gutxieneko denboran, eskatutako ordu-tarteetan, erosotasun- eta segurtasun- baldintzetan eta arrazoizko kostu ekonomikoekin.

Gainera, zaintzaren eta eguneroko bizitzaren premia horiei erantzun behar zaie ez bakarrik hirigunean bizi direnen ikuspegitik, baita landa-ingurunean bizi direnen ikuspegitik ere.

Eraginkortasunaren mesedetan egokia iruditzen zaigu genero-zeharkakotasuna eremu jakin batzuetako ekintza hautatu batzuetara mugatzea, horrela jardun-espektro handiegi bat eraginpean hartzeko arriskua saihesteko, horrek azkenean ekintzen inpaktua moteltzea ekar lezakeelako. Ildo horretan, honako eremu hauek hautatu dira: garraioa eta mugikortasuna (hirikoa eta hiriartekoa); hurbileko hirigintza; eguneroko bizitzarako ekipamendu eta eremu publikoak (merkataritza-zentroak eta - ekipamenduak barne); segurtasuna; etxebizitza; landa-ingurunea; eta gobernantza.

Identifikatutako jardun-eremuetan atzemandako desparekotasunen ondorioz egingo da ekintza- hautaketa hori, eta honako hauek dira adierazgarriak:

- Lurralde-antolamenduan eta hirigintzan: mendeko pertsonen zaintzarako ekipamenduen existentzia eta irisgarritasuna; hiri-eremuen eta eraikinen erabilera-eredu desberdinak, pertsonak bereganatzen dituzten genero-rol desberdinak direla eta; bikoterik ez duten emakumeek etxebizitza bat lortzeko dituzten zailtasun handiagoak, talde kalteberek batez ere, familia gurasobakar amadunek eta genero-indarkeriaren biktimek, esaterako; emakumeek eremu publikoan eta hiri-zuzkiduretan sentitzen duten segurtasun-gabezia handiagoa.*
- Mugikortasun jasangarrian: pertsonen mugikortasun-ereduak aldatzen dira gizon eta emakumeek beren gain hartzen dituzten genero- rolen arabera, eta, estatistikoki, emakumeek neurri handiagoan erabiltzen dute garraio publikoa; arrazoi gehiagorengatik egiten dituzte bidaiak, bidaiak gehiago kateatzen dituzte eta ibilgailu pribatua erabiltzeko aukera gutxiago dituzte; beste pertsona batzuk zaintzeko eta etxea mantentzeko egindako bidaiak ez dira behar bezala zenbatzen estatistiketan.*
- Landa-ingurunean: genero-desberdintasunak garraiora eta garraio-zerbitzuetara, ekipamenduetara eta enplegu-tokietara iristean; genero-desberdintasunak ekipamendu eta zerbitzuak erabiltzeko premietan, zaintzaren alorrean bereziki, zerbitzu eta ekipamenduen sarearen kapilaritateari dagokionez; genero-desberdintasunak nekazaritza- jardueran, ustiatzearen titulartasuna barne.*
- Gobernantza: emakumeen presentzia txikiagoa herritarrek parte hartzeko prozesuetan eta talde teknikoetan; ahuleziak politika, plan eta jardunak diseinatu eta egikaritzeko eta haien jarraipena egiteko fase guztietan generoari buruzko aditu-mailako jakintza integratzean.*

II. HELBURUAK

Genero-ikuspegiaren alorrean, lurralde-estrategia berrikusteko helburuak honako hauek dira:

- 1. Lurralde- eta hirigintza-jardunean, genero-ikuspegia integratzen duen plangintza sustatzea, denboran sendotzeko modukoa.*
- 2. Genero-ikuspegia sartuta, lortu nahi den lurralde-ereduaren oinarriak ezartzen laguntzea, bereziki, lurralde jasangarri, inklusibo, adimendun eta partizipatiboa eraikitzeko.*
- 3. Bere eskala guztietan zaintza-premiei erantzuna ematen dien lurraldea sustatzea, zaintzaren hirigintzaren jarduna sartuz lurralde- zein hirigintza-plangintzan.*
- 4. Berdintasunaren helburua lortzen eta herritar guztien bizi-kalitatea hobetzeko lurralde eta hiriak sortzen laguntzea, edozein desberdintasun-ardatzetik (sexua, adina, maila sozioekonomikoa, etnia, arraza eta abar) harago.*

III. LURRALDE-GIDALERROAK

Genero-ikuspegiaren arloko lurralde-gidalerroak Aplikatzeko arauen 30. artikuluan jasotzen dira.

LAGen memoriaren hainbat ataletako pasarteak atera dira, genero-ikuspegia txertatzeari buruzko xedapen horien erakusgarri.

2. Lurralde-ereduaren oinarriak eta printzipio gidariak / 2.1 Lurralde-ereduaren oinarriak

(...)

II. LURRALDE INKLUSIBOA

(...)

Genero-ikuspegiari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da alderdi hori aztertzea eta ikuspegi hori lurraldearen antolamenduan eta hiri-antolamenduan txertatzeko modua aztertzea. Lan-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzea eta segurtasun pertsonala pertsona guztiei eragiten dieten alderdiak dira, baina emakumeengan bereziki eragiten dute. Lurraldearen antolamendutik abiatuz genero-ikuspegiaren gaiari heltzea planteatzen da hainbat eremutan, esate baterako, zainketaren hirigintzan, mugikortasunean, irisgarritasunean, ekipamenduetan, baita merkataritzan, etxebizitzaren arloan eta landa- nahiz hiri-habitategian ere, edota partaidetzan.

(...)

3. Lurralde-eredua. Elementu definitzaileak

(...)

VII. ZEHARKAKO GAIAK

(...)

b) Genero-ikuspegia

Pertsonak premia eta itxaropen desberdinak dituzte lurraldearekiko eta hiri-gunearekiko nahiz landagunearekiko, bakoitzak eguneroko bizitzan hartzen duen genero-rolaren arabera. Lurraldearen Antolamenduan genero-ikuspegia sartzeak aukera ematen du gizon eta emakumeek baliabide guztiak baldintza-berdintasunean eskuratzen dituztela bermatzeko.

5. Landa-habitata

I. GAIA ZERTAN DEN

(...)

Landa-habitategian identifikatzen diren generoko desparekotasun edo desberdintasun esanguratsuenak honako esparru hauetan gertatzen dira: garrorako eta zerbitzueterako, ekipamenduetarako eta enplegu-lekuetarako sarbidea; ekipamendu eta zerbitzuak erabiltzeko premietan, bereziki, zaintzari buruz, zerbitzu eta ekipamenduen sarearen kapilaritateari dagokionez; eta nekazaritza-jardueran, ustategien titulartasuna barne.

Nabarmentzekoa da Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legearen onespena, nekazaritzaren sektorean emakumeek jasaten duten bereizkeriari aurre egiteko, batik bat, aitorpen profesionala lortzeko eta gizartean aintzat hartua izateko, eta beren eskubide profesional, sozial eta fiskalak egikaritzeko. Estatutu honen abiapuntuan emakume nekazarien eskubideak daude, eta eskubide horiek egikaritzea bermatzeko administrazio publikoek dituzten betebeharrak zehazten ditu.



Esparru orokorra EAE: EUSTAT Estatistika I 2010

II. HELBURUAK

(...)

9. *Gizarteratzea, pobreziaren murrizketa eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu landaguneetan.*

(...)

9. Mugikortasuna eta Logistika

I. GAIA ZERTAN DEN

(...)

Orobat, egiaztatu da pertsonen mugikortasun-ereduak aldatzen direla gizon eta emakumeek beren gain hartzen dituzten genero-rolen arabera, eta, estatistikoki, emakumeek neurri handiagoan erabiltzen dute garraio publikoa, bidaia gehiago egiten dituzte beste pertsona batzuk zaintzea, etxeko mantentzea edo etxeko kontuak direla kausa, bidaia gehiago kateatzen dituzte eta ibilgailua pribatua erabiltzeko aukera gutxiago dituzte. Hortaz, beharrezkoa da genero-ikuspegiari eta zaintzaren mugikortasunari arreta berezia jartzea mugikortasun jasangarriaren alorrean.

(...)

9.1. Mugikortasuna eta logistika / Mugikortasun multimodala

(...)

II. HELBURUAK

(...)

4. *Genero-ikuspegia aplikatzea garraio publikoaren plangintzan eta kudeaketan, eta zaintzaren mugikortasunari behar bezala erantzutea.*

10. Zeharkako Gaiak

(...)

10.2 Genero-ikuspegia

(ikusi eduki osoa goian)

10.4 Osasuna

(...)

II. HELBURUAK

(...)

2. *Osasun alorreko berdintasuna sustatzea, herritar guztiek komunitate-zerbitzu guztiak edukitzeko, eskuratzeko eta erabiltzeko aukera berdinak eduki ditzaten, beren generoa, adina, etnia, estatus sozioekonomikoa edo egoera funtzionala edozein izanik ere.*

(...)

Azkenik, jarraian, genero-ikuspegia txertatzearekin estu lotutako gidalerroen edukia biltzen da (LAGen Aplikazio Arauena).

I. kapitulua - Xedea eta izaera

1. artikulua. Xedea

(...)

2. artikulua. Izaera

1. (...)

2. *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Legearen (maiatzaren 31ko 4/1990 Legea) 8. artikulua 4. apartatua xedatutakoaren arabera, desberdintasun bat ezartzen da antolamenduko eta espazioaren erabilerako gidalerro lotesleen eta gomendio mailako gidalerroen artean.*

a) *Antolamenduko eta espazioaren erabilerako gidalerro lotesleak II. kapitulan jasotzen dira eta inposatze-, baztertze- edo alternantzia-irizpideak dira irizpide onargarri batzuen artean.*

b) *Gomendio mailako gidalerroak III. kapitulan jasotzen direnak dira. Administrazio eskuduna gidalerro horietatik aldentzen denean, berariaz justifikatu beharko du hartutako erabakia eta bere bateragarritasuna xede dituen helburuekin.*

3. *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 8. artikulua 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren arabera, gidalerroak eraginkortasun zuzen edo zeharkakoak izango dira.*

a) *Gidalerroen eraginkortasuna zuzena izango da orokorrean aplikatu beharreko arau zehatzetan adierazten denetan.*

b) *Gidalerroen eraginkortasuna zeharkakoa izango da gidalerroak lurralde-plangintzaren arloko eskuduntzako administrazio publiko desber-*

dinei zuzenduak daudenean berariaz, eta hirigintza-plangintzaren birtartez garatu behar direnean.

- c) *II. kapituluko gidalerroak eraginkortasun zuzenekoak dira hirigintza-plangintzarako, ataletako termino berberetan, salbu lurralde-plangintza partzialari edo sektorialari erreferentzia egiteagatik zeharkako eraginkortasuna badute edo eraginkortasunik ez badute, arau hauetako I. Eranskinean zehazten den bezala.*

II. kapitulua - Espazioaren antolamendurako eta erabilerarako gidalerroak

(...)

19. artikulua. Zeharkako gaien eta hiri-ereduaren arloko gidalerroak

1. *Kontuan hartzea lurraldean eragina duten zeharkako gaiak: irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurralde-interrelazioa.*
2. *Zeharkako gaiak kontuan hartuta hiri-eredu trinkoa, erabileren nahasketari dagokionez konplexua sustatzea, gizarte arloan kohesionatutako eredu.*

III. kapitulua - Gomendio mailako gidalerroak

20. artikulua. Landa-habitataren arloko gidalerroak

(...)

7. *Genero-ikuspegia sartzea laborantza-sektoreko esparru guztietan eta Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legean ezartzen diren neurriak gauzatzea, aitorpena lortzeko, baita haien eskubide profesional, sozial eta fiskalen onespena ere emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna lortzeko.*
- (...)*
9. *Landa-inguruan bizi diren pertsonen aitorpen soziala ageriko egitea, jantziak hornitzeko eta lurraldea zaintzeko egiten duten lanarengatik, emakumei arreta berezia eman.*

(...)

25. artikulua. Mugikortasun multimodalaren arloko gidalerroak

(...)

8. *Mugikortasun-planetan genero-ikuspegia biltzea, zaintzaren mugikortasuna kontuan hartuta.*

(...)

30. artikulua. Genero-ikuspegiaren arloko gidalerroak

1. *Lurraldearen izaera polizentrikoa sustatzea, non hiri ertainen protagonismoa berreskuratzea funtsezkotzat jotzen den zerbitzuak biltzeko eta emateko zentroak diren heinean.*
2. *Lurraldea planifikatzean, erabilera guztiak, eta bereziki eguneroko bizitzarako beharrezkoak direnak, hurbil kokatzea, joan-etorriak ibilgailuz egin beharra murrizteko edo denborak ahal den neurrian laburtzeko moduan.*
3. *Hurbiltasuneko hiri konplexua sustatzea, ongi hornitutako auzo seguruetan oinarritua, hiriko eta lurraldeko beste eremu batzuekin garraio publiko bidez ongi konektatuak.*
4. *Gune publiko bizi eta seguruak indartzea, haien gizarte-eginkizuna mantendu eta sustatzeko eta herritarrei haiek erabiltzeko aukera emateko.*
5. *Gune publikoak planifikatu eta diseinatzean, emakumeen, adinekoen (bi sexuen premia diferentzialei arreta eskainiz) eta haurren premiak kontuan hartzea.*
6. *Dentsitate nahikoa duen hiri-eredu bat sustatzea, erabilerak behar bezala nahastea eta eguneroko bizitzarako behar diren ekipamenduetara oinez iristea ahalbidetuko duena, baita garraio publikoaren eraginkortasuna ere, ibilgailu pribatu bidezko mugikortasunaren mendetasuna murrizteko moduan.*
7. *Garraioaren plangintzan eta kudeaketan genero-ikuspegia sartzea, jarduera horietan emakumeen mugikortasun-jarraibideak, bidaiatzeko modua eta joan-etorrien denbora- eta ordu-murrizketak kontuan hartzeko moduan, eta emakumeen irisgarritasun-premiak eta segurtasuna kontuan hartzeko moduan.*
8. *Zaintzaren mugikortasuna sustatzea, beste pertsona batzuk zaintzearekin eta etxea mantentzearekin lotutako bidaiak ahalik eta denbora gutxienean, eskatutako ordu-tarteetan eta arrazoizko kostu batekin egiteko aukera ziurtatuz, eta pertsonen ordainpeko enplegua zaintza-erantzukizunekin bateragarri egiteko bidea emanez.*
9. *Espazio publikoan segurtasuna bermatzea; horretarako, plangintza-prozesuan, parte-hartze prozesuen barruan, talde sozial batzuek eta besteek arriskutsu edo ez seguru gisa ikusten dituzten guneak identifikatuko dira.*
10. *Herritarrek parte hartzeko prozesuak garatzea genero-ikuspegia aintzat hartuz emakumeen parte-hartzea indartzeko.*

V. ERANSKINA:

TERMINOEN GLOSARIOA

Gida hau ulertzeko laguntza bat da glosario hau. Bertan, gidak erabiltzen diren zenbait terminoren definizioak ematen dira.

EKINTZA POSITIBOA

“Denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak dira; beren helburua bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzea edo murriztea da” (Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen web-orriko terminoen glosarioa).

“Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, botere publikoek neurriak hartu behar dituzte, espezifikoak eta aldi baterakoak, bizitzaren eremuetan sexuan oinarritutako egitatezko desberdinkeriak desagerrarazteko edo murrizteko” (Berdintasunerako Legearen 3.6. artikulua).

EMAKUMEEN ETA GIZONEN

BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK

“Administrazioek beren kontratazio, dirulaguntza edo hitzarmen publikoetan sartzen dituzten betekizun, irizpide, betebeharrak, eginbehar edo konpromisoak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen aurrera egiteko erabiltzen direnak” (kontratazioko berdintasun-klausulei buruzko terminoen glosarioa. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen webgunea).

KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA

“(…) kontziliazio erantzunkidea neurrien multzoari dagokio. Neurriok bidezko oreka bilatzera bideratuta daude, norberaren, familiaren eta lanbidearen betebeharrei eta beharrei erantzuteko orduan. Neurri horien bidez, inplikaturako era-

gile guztiek eta, bereziki, gizonak, erakunde publikoek eta enpresek etxeko eta zaintzako lanaren zati bat beren gain hartzea sustatuko da, lan horren erantzukizuna funtsean emakumeen gain ez uzteko, eta gaur egun duten banaketa desberdina zuzentzeko, hori baita emakumeek bizitzaren eremu guztietan pairatzen duten desberdintasun- eta diskriminazio-egoera estrukturalaren oinarria. Alde horretatik, EAEko administrazio publikoek bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarriak egitea erraztu behar dute. Horretarako, alderdi hauek sustatuko dituzte: ordaindu gabeko etxeko lan eta zaintza-lanetan gizonak erantzunkide izatea; enplegu-egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren betebeharrak beharrezkoak egokitzea; zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa izatea; prestazio ekonomikoak eta neurri fiskalak prestatzea, eta delako helbururako egoki iritzitako beste edozein neurri” (Berdintasunerako Legearen 51. artikulua).

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

“(...) emakumeen ahalduntzea da emakumeek emakume izateagatik jasaten duten desberdinkeria- eta diskriminazio-egoera estrukturalaz jabetzeko egiten duten prozesua, banaka zein kolektiboki, bai eta beren bizitzari buruzko erabaki estrategikoak hartzeko eta bizitzaren zenbait alderditan generoan oinarritutako desberdinkeria eta diskriminazioa sendotzen eta iraunarazten duten egiturak eta erakundeak eraldatzeko aukera emango dieten eskumena, boterea eta kontrola eskuratzeko prozesua ere” (Berdintasunerako Legearen 3.12. artikulua).

GENEROAREN ARABERAKO

ERAGINAREN AURREKO EBALUAZIOA

Tresna horren xedea da aztertzea arau edo administrazio-ekintza batean proiektatutako jarduera batek emakumeen eta gizonen desparekotasunak desagerrarazteko eragin positiboak edo negatiboak izan ditzakeen, eta arautu edo esku hartu nahi duen inguruar bar sozialean haien arteko berdintasuna sustatzen duen. Hala, analisi hori zein den, proiektuari egin beharko zaizkion zuzenketa-neurriak eta aldaketak jasotzen ditu, hala badagozkie, balizko inpaktu negatiboa neutralizatzeko, edo, bestela, inpaktu positiboa indartzeko.

(Honetan oinarritua: “Generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa. Toki-erakundeetan ezartzeko prozesuaren eta ezarpenerako tresnen azalpen-gida” Eudel eta Emakunde, 2018).

GENERO-ERAGINA

“Proiektu, arau, esku-hartze, kontratu eta abarrek emakumeengan eta gizonengan eta berdintasunean dituen ondorioak”

(Honetan oinarritua: “Generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa. Toki-erakundeetan ezartzeko prozesuaren eta ezarpenerako tresnen azalpen-gida “Eudel eta Emakunde, 2018).

GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA

“(…) hau da genero-ikuspegia txertatzea: sistematikoki kontuan izatea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan diferentak, eta, horretarako, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jardura espezifikoak gehitzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horiek planifikatzeko, betearazteko eta ebaluatzeko fase guztietan” (Berdintasunerako Legearen 3. 5. artikulua).

GENERO-IKUSPEGIA EDO -IKUSPUNTUA

“Ikuspuntu horri esker, ikus daiteke planifikatzen den edozein ekintzak zer nolako inplikazioa duen emakumeentzat eta gizonentzat, eta lor daiteke emakumeen eta gizonen kezka eta esperientziak funtsezko zati izatea politikak eta programak egin abiarazi, kontrolatu eta ebaluatzekoan” (Berdintasun-neurriei eta berdintasunerako klausulei buruzko terminoen glosarioa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen web-orrikoa).

ORDEZKARITZA OREKATUA

“EAEko botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte erabakiak hartzeko esparru guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko, guztiek gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia dutela.

Ordezkaritza orekatuaren printzipioa aplikatuko da, alde batetik, epaimahaiak, hautaketa-epaimahaiak eta pertsona anitzeko bestelako administrazio-organismoak eratzerakoan, eta, bestetik, kargu publikoak, sozietate publikoen administrazio-kontseiluetako kideak eta EAEko sektore publikoa osatzen duten entitateen gobernu-organoetako kideak izendatzerakoan.

Pertsona anitzeko administrazio-organoei dagokienez (...) ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kideetik gorako organoetan sexu bakoitzeko kideek % 40ko ordezkaritza dutenean gutxienez. Gainerako kasuetan, berriz, bi sexuek ordezkaritza dutenean (...)” (Berdintasunerako Legearen 3. 10. Artikulua).

HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ-SEXISTA

Hizkuntza modu ez sexistan erabili dela esango da hauen erabilera nagusi bada: generiko errealak; bi genero gramatikal, kasu bakoitzari dagokionean; forma bikoitzak; aditzen eta izenordainen forma pertsonalak; eta, hala badagokio, barrak (formularioetan, fitxetan, eskaera-inprimakietan eta antzeko dokumentuetan). Horren guztiaren helburua da testuan maskulino generikoak ez gailentzea, gizonezkoak beti izendatuta egon daitezen eta narrazioen protagonistak izan daitezen, eta emakumezkoak ikusezin bihurtzeko, baztertzeko edo bigarren mailako edo mendeko zereginetara mugatzeko.

(Honetan oinarritua: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ezarpenari buruzko Tarteke Ebaluazioa. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. Otsaila, 2009).

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA

“(...) Emakumeen aurkako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da, arazo soziala eta osasun publikoko arazo handia, botere-harreman ez-parekoen eta emakumeen kontrako diskriminazioaren erakusgarri argia, eta, horretaz gainera, generoaren arabera dauden desberdinkeria-egoera estrukturalak betikotzeko funtzio soziala du. Emakume izateagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen du, neska txikien, neska nerabeen eta emakume transexualen kontra egiten dena barne, edo neurriz kanpo eragiten dien indarkeria, bai eremu publikoan, bai pribatuan. Indarkeria egitezkoa zein ez-egitezkoa izan daiteke, eta bitartekoak izan daitezke fisikoak, psikologikoak edo ekonomikoak, mehatxuak, larderia eta hertsapena barne, baldin eta haien ondorioa min, sufrimendu edo kalte fisikoa, sexuala, psikologikoa, soziala, sozioekonomikoa edo ondarearekin lotutakoa bada.

Emakumeen kontrako indarkeria matxista dira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren kontrako indarkeria, familia-indarkeria, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neska txikien salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste jardun tradizional kaltegarri batzuk, hertsapena edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, obstetrikoa, sexu- eta ugalketa-eskubideak urratzea, eta emakumeen edo neska txikien duintasuna, segurtasuna edo askatasuna urratzen duen edo urra dezakeen beste edozein indarkeria mota, baldin eta nazioarteko tratatuetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko edo Autonomia Erkidegoko araudietan jasota badago. Hori guztia, kontuan izan gabe alor publikoan edo pribatuan gertatzen den; horren barnean sartzen dira, besteak beste, eremu hauek: familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola, komunitatea, komunikabideak, aisialdi- eta jai-espazioak eta eremu birtuala.

Halaber, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat jotzen da biktimak babesten dituzten pertsonen aurka egiten den indarkeria, bai eta haien hurbileko ingurunearen edo ingurune afektiboaren aurka egiten dena ere, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurkakoa, emakumea atsekabetzeko berrondatez (...)” (Berdintasunerako Legearen 54. artikulua).

VI. ERANSKINA:

ERREFERENTZIA INTERESGARRIAK

- ~ *Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa lurralde-plangintzan eta hiri-gintzan.* Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea, 2022.
- ~ *Genero-ikuspegidun hiri-berroneratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Agendaren esparruan. Bultzatu 2050. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (2020).* https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/regeneracion_urbana/es_def/adjuntos/Regeneracion-Urbana-Perspectiva-de-Genero.pdf
- ~ *Urbanismo y género. Guía para la elaboración de informes de evaluación del impacto de género en el sector del urbanismo y para la planificación urbanística con perspectiva de género.* Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia. Madrilgo Erkidegoko Gizarte Politika, Familia, Berdintasun eta Jaiotza Kontseilaritza, 2019.
- ~ *Generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioa. Toki-erakundeetan ezartzeko prozesuaren eta ezarpenerako tresnen azalpen-gida.* EUDEL - Euskal Udalerrien Elkarte eta Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea, 2018.
- ~ *Set para introducir la perspectiva de género en el proceso urbano. Recopilación de información en materia de arquitectura y urbanismo desde la perspectiva de género.* Valentziako Generalitateko Etxebizitza, Obra Publiko eta Lurralde Egituztatze Saila, 2017.
- ~ *Genero-ikuspegia Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan. Ekintza-proposamenak. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, 2016.*
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/revision_dot/eu_def/adjuntos/Genero%20ikuspegia%20LAG%20\(ISdM\).pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/revision_dot/eu_def/adjuntos/Genero%20ikuspegia%20LAG%20(ISdM).pdf)
- ~ *Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egiteko gidaliburua.* Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea, 2013.
- ~ *Hirigintza barneratzailea. Kaleek badute generoa. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, 2012.*
- ~ *Hiri-analisirako manuala. Generoa eta eguneroko bizitza. Generoaren eta herri-tarren eguneroko bizimoduaren ikuspegitik hirigintzaren analisi-mapak egiteko eskuliburua. Hiri debekatuaren mapak EAEn.* Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, 2010.
- ~ *Guía de urbanismo con perspectiva de género.* Gizarte Politika, Emakume eta Immigrazio Saila. Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoa. Murtziako Eskualdeko Emakumearen Institutua, 2008.

~ *Urbanismo con perspectiva de género*. Andaluziako Juntako Andaluziako Emakumearen Institutua, 2004.

~ *Hirigintza, etxebizitza eta ingurumena genero-ikuspegitik*. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea, 2003.





GUÍA PARA LA EVALUACIÓN DE IMPACTO DE GÉNERO DE LOS PLANES GENERALES DE ORDENACIÓN URBANA



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GUÍA

34



**GUÍA PARA LA EVALUACIÓN
DE IMPACTO DE GÉNERO DE
LOS PLANES GENERALES DE
ORDENACIÓN URBANA**

Título: Guía para la evaluación de impacto de género de los Planes
Generales de Ordenación Urbana.

Edita: Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer.
Manuel Iradier, 36, 01005 Vitoria-Gasteiz

Diseño y maquetación: EPS - Eusko Printing Service

Fecha: Noviembre 2024

Tirada: 1.000 ejemplares

Descriptores: Igualdad, Urbanismo, Evaluación impacto de Género, Guía.

Impresión: EPS - Eusko Printing Service

ISBN: 978-84-89630-61-1

Depósito legal: G 719-2024

ÍNDICE

SIGLAS	5
INTRODUCCIÓN	8
1. ¿ES OBLIGATORIO REALIZAR LA EVALUACIÓN DE IMPACTO DE GÉNERO DEL PGOU?	11
1.1 Ley 2/2016, de 7 de abril, de instituciones locales de Euskadi	12
1.2 El texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo	13
1.3 Ley orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres	17
1.4. Real decreto legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de suelo y rehabilitación urbana	19
2. ¿QUIÉN REALIZA LA EIG?	20
3. ¿CÓMO REALIZAR LA EIG DE UN PGOU?	23
3.1. Elementos a considerar	24
3.2. Dimensiones de análisis del ámbito a ordenar por el PGOU	28
3.2.1. Generales	29
3.2.2. Otras	32
4. ¿QUÉ PROCESO SEGUIR? LA EIG EN EL ITINERARIO DE ELABORACIÓN DE UN PGOU	37
4.1. El proceso de elaboración de un plan general de ordenación urbana	38
4.2. FASE 1: Actuaciones preparatorias	38
4.3. FASE 2: Avance	41
4.4. FASE 3: Aprobación inicial	42

4.5. FASE 4: Aprobación provisional	43
4.6. FASE 5: Aprobación definitiva	44
4.7. Seguimiento	44
4.8. Esquema del proceso de elaboración de la EIG en el marco del proyecto del PGOU	45
ANEXOS	47
ANEXO I. Cuestiones e indicadores a tener en cuenta para la valoración del impacto en función del género del PGOU	48
ANEXO II. Modelo de informe de evaluación de impacto de género	61
ANEXO III. EIG en el procedimiento del planeamiento urbanístico	68
ANEXO IV. La perspectiva de género en las directrices de ordenación territo- rial	71
ANEXO V. Glosario de términos	81
ANEXO VI. Referencias de interés	86

SIGLAS

A continuación, se exponen las principales siglas utilizadas durante el documento:

Ayto.	Ayuntamiento.
--------------	---------------

BOTH	Boletín Oficial del Territorio Histórico
-------------	--

EIG	Evaluación Previa de Impacto de Género
------------	--

ER	Equipo redactor del PGOU
-----------	--------------------------

PPC	Programa de Participación Ciudadana.
------------	--------------------------------------

PGOU	Plan General de Ordenación Urbana
-------------	-----------------------------------



El texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, **en el artículo 20.7, establece que**

“Los planes que tengan naturaleza jurídica de disposiciones de carácter general, en particular los territoriales y urbanísticos, deben ser objeto de evaluación previa de impacto en función del género e incluir medidas para promover la igualdad.”

Por su parte, la Estrategia para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAE 2030, aprobada por el Gobierno Vasco el 13 de febrero de 2024, establece entre sus objetivos el incrementar el número de normas y de planes estratégicos y sectoriales que incluyen medidas dirigidas a reducir o eliminar desigualdades de género y promover la igualdad y que incorporan la perspectiva de género (BG2.3 y BG2.7).

Esta guía tiene como objeto ser un instrumento útil de cara a facilitar la realización de la evaluación previa de impacto en función del género de los Planes Generales de Ordenación Urbana a las y los profesionales responsables del cumplimiento de dicho mandato y ha sido diseñada teniendo en cuenta la realidad local que nos rodea, con la esperanza de que su aplicación nos lleve al avance en el desarrollo de las políticas de igualdad a nivel local.

El documento ha sido elaborado por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, con la asistencia técnica inicial de Red Kuorum, y en colaboración con las principales instituciones públicas vascas implicadas en la materia: el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa y las entidades locales a través de EUDEL-Asociación de Municipios Vascos.

Quiero agradecer a todas las personas e instituciones que han estado involucradas en el proceso de elaboración de esta guía, su implicación y buen hacer, que ha sido imprescindible en el logro de este documento, del que tenemos el convencimiento que contribuirá significativamente al a una planificación urbana con perspectiva de género.

Dirección de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

INTRODUCCIÓN



A lo largo de los últimos años, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer ha trabajado, en colaboración con la Asociación de Municipios Vascos EUDEL y con Berdinsarea, la Red de Municipios vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres, en el diseño de herramientas para facilitar la elaboración de Evaluaciones Previas de Impacto en Función del Género –en adelante EIG– a nivel local. Actualmente dicha obligación está recogida en el artículo 20 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo (en adelante Ley para la Igualdad).

Así, en 2018 Emakunde y EUDEL coeditaron el documento “Evaluaciones previas del impacto en función del género. Guía explicativa del proceso y herramientas diseñadas para su implantación en las entidades locales”.

En la misma línea, el presente documento tiene por objeto facilitar la realización de la EIG en los Planes Generales de Ordenación Urbana (PGOU). No obstante, en aquellos aspectos en los que exista analogía, puede ser aplicada a otros planes territoriales y urbanísticos, que de acuerdo con la normativa deben ser objeto de EIG y todo ello sin perjuicio de que en un futuro se determine reglamentariamente la forma de llevar a cabo dicho trámite.-

De forma sencilla aborda las siguientes cuestiones:

- ~ ¿Cuál es el marco jurídico para la realización de la EIG?
- ~ ¿Quién tiene la obligación de realizarla?
- ~ ¿Por qué una norma o acto administrativo debe de revisarse desde la perspectiva de género?
- ~ ¿En qué consiste la evaluación?
- ~ ¿En qué casos se realiza?
- ~ ¿Quién la realiza?
- ~ ¿Qué condiciones previas garantizan la correcta realización de la EIG?
- ~ ¿Cómo realizar una EIG?

Este documento, además, responde a la necesidad de cumplir con lo establecido en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, según la cual todos los municipios tienen la obligación formal de tener un Plan General de Ordenación Urbana adaptado a la misma, así como a las demandas planteadas en ese sentido por los propios municipios.

A esta demanda, se une como antecedente y elemento de refuerzo positivo, por un lado, la incorporación de la perspectiva de género como cuestión transversal en las Directrices de Ordenación Territorial aprobadas definitivamente mediante Decreto 128/2019, de 30 de julio, y por otro lado, el impulso que tanto Emakunde como el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco han realizado, financiando la elaboración de experiencias diversas de introducción de la perspectiva de género en el planeamiento municipal y el urbanismo, así como otras iniciativas llevadas a cabo desde las administraciones forales y locales, y el interés y trabajo creciente

de profesionales del sector y del feminismo, cada vez más activo y preocupado por las consecuencias específicas del urbanismo sobre la vida cotidiana.

